

**AÑARBEKO UREN
MANKOMUNITATEA**

AURREKONTU OROKORRA

2025eko ekitaldi ekonomikoa

AURREKONTU OROKORRA 2024KO EKITALDIA

AURKIBIDEA

I.	Sarrera	1
II.	2025erako Aurrekontu Orokorraren edukia	1
	A) Añarbeko Uren Mankomunitatearen aurrekontu propioa	1
	B) Aguas del Añarbe–Añarbeko Urak, SA sozietate publikoaren aurrekontua	3
	1. Sarrera	3
	2. AUSAren aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria.....	3
	3. Kapitulukako laburpena.....	10
	4. Kontu-sailkako xehetasuna	11
	5. Konpromiso-kredituen xehetasuna.....	15
	6. Gastu arrunteko kapituluaren banakatzea jardueren arabera.....	16
	7. Inbertsioen eranskina	16
	8. AUSAren aurreikuspen-kontuak	39
	C) Gestión de Centrales del Añarbe, SA sozietate publikoaren aurrekontua	42
	1. Sarrera	42
	2. GECASAREN aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria	42
	3. Kapitulukako laburpena.....	43
	4. Kontu-sailkako xehetasuna	43
	5. Konpromiso-kredituen xehetasuna.....	46
	6. Gastu arrunteko kapituluaren banakatzea jardueren arabera	46
	7. Inbertsioen eranskina	47
	8. GECASAREN aurreikuspen-kontuak.....	48
	D) Aurrekontu kontsolidatua	51
	E) Maileguen egoera	52
	F) Zorpetze-eranskina	54
III.	Aurrekontu Orokorraren aurrekontua betearazteko araua	55

AÑARBeko UREN MANKOMUNITATEAREN AURREKONTU OROKORRA 2025EKO EKITALDIRAKO

I. Sarrera

Dokumentazio honek Añarbeko Uren Mankomunitatearen 205e4ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra osatzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak eskatzen duen dokumentazioarekin batera. Aurrekontu horrek, indarrean dagoen araudia betetzeko, barnean hartzen ditu Mankomunitatearen aurrekontu propioa eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA (AUSA) sozietate publikoarena. Izan ere, AUSA Mankomunitatea kudeatzeko organoa da 1995ean eratu zenetik. Halaber, Gestión de Centrales del Añarbe, SA (GECASA) sozietateari dagozkion aurreikuspenak biltzen dira. AUSAk % 70eko partaidetza dauka aipatutako sozietatean, eta Energiaren Euskal Erakundeak % 30ekoa.

II. 2025erako Aurrekontu Orokorren edukia

A) Añarbeko Uren Mankomunitatearen aurrekontu propioa

Añarbeko Uren Mankomunitatearen Aurrekontuak sarreraren eta gastuen egoera-orria, aurrerago zehaztuko dena, jasotzen du. Kudeaketarako Sozietate Anonimoa sortzeak eta Mankomunitatearen eta Sozietatearen arteko harremanak erregulatzen dituen hitzarmena aplikatzeak (hitzarmenak Sozietatearen esku uzten ditu 1995eko abenduaren 31ra arte Mankomunitateak ematen zituen zerbitzuak) hainbat aldaketa ekarri dituzte aurrekontuetan, eta aldaketa horiek eragina izan dute sarreretan eta gastuetan.

Aipatutako aurrekontua osatzen duten aurreikuspenak eta kredituak beren jatorri ekonomikoaren arabera antolatuta daude, indarrean dagoen aurrekontu-sailkapenari jarraituz.

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua / Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
3	Tasak eta bestelako sarrerak	10.001
399.01	Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak	1
399.02	Beste zenbait sarrera	10.000
Sarreraren egoera-orria guztira		10.001

399.01 azpikontzeptua – Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak: Sozietatetik jasotzen diren sarrerak —Mankomunitatearen eta hainbat erakunde publikoren artean hitzartutako azpiegitura-obra finantzatzeko erabiliko direnak— erregistratzera zuzenduta dago.

399.02 azpikontzeptua – Beste zenbait sarrera: Askotariko sarrerak erregistratzera zuzenduta dago.

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua / Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	10.001
226.99	Beste zenbait gastu	10.000
227.99	Kanpoko beste lan batzuk	1
Gastuen egoera-orria guztira		10.001

226.99 azpikontzeptua – Beste zenbait gastu: Gastu arruntetatik datozen zenbait obligaziori erantzutera zuzendutako kreditua.

227.99 azpikontzeptua – Kanpoko beste lan batzuk: Azpiegitura-lanak finantzatzeko, hainbat erakunde publikorekin sinatutako hitzarmenen ondoriozko obligazioei erantzutera zuzendutako kreditua, zeina oso-osorik kudeaketa-sozietateari jasanarazten zaionez, zabalgarri izaerarekin definitzen da kreditua.

Gainerakoan, urarekin zerikusia duten zerbitzuen kudeaketa osoa Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietatearen bidez egiten denez, Mankomunitateak ez du konpromiso-kredituen egoera-orria aurkezten, ez eta gastu arruntaren banakatzea, jardueren arabera, ezta inbertsioen eranskina ere.

B) Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietate publikoaren aurrekontua

1. Sarrera

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietate publikoa denez, aplikatzekoa den aurrekontu-araudiaren mende dago. Aipatutako araudia betetzeko, aurrekontuarekin batera, honako dokumentu hauek aurkezten dira:

- 2025eko abenduaren 31rako aurreikusitako balantzea
- 2025eko ekitaldirako aurreikusitako galera-irabazien kontua
- 2025eko ekitaldirako ondare garbian aurreikusitako aldaketen egoera-orria

Ondoren zehazten den aurrekontuan agertzen diren aurreikuspenek eta kredituek barne hartzen dituzte lehen mailako sarean ura hornitu, saneatu eta arazteko zerbitzugintzari lotutako aurreikuspenak eta kredituak.

B.2. AUSAren aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria

2025eko ekitaldi ekonomikorako aurreikusitako sarrera eta gastuen kontzeptu nagusiak eta 2024ko ekitaldiarekiko aldaketa ekonomiko nagusiak azaltzen dira jarraian:

Zerbitzugintzaren ondoriozko sarrerak

Atal honek barne hartzen ditu Sozietateak emandako zerbitzuen ondorioz zenbatetsitako sarrerak, kontzeptu hauek direla eta:

Kontzeptua	Zenbatekoa (€-tan)
Hornidura	8.461.535
Saneamendua	7.808.186
Arazketa	6.854.374
Zerbitzugintzaren ondoriozko sarrerak guztira	23.124.095

Jakina denez, aurreko sarreren artean sarrera nagusia dator kide diren udalei lehen mailako sarean ura hornitzeko, saneatzeko eta arazteko zerbitzuak ematek.

lido horretatik, udalei zerbitzu horiek emateagatik aurreikusitako sarreren guztizkoa honela lortzen da: hornidura-kuota finkoa aplikatuzetik esleitutako emariari (2.200 l/s/urte); saneamendu- eta arazketa-kuota finkoak aplikatuzetik saneamendu unitarioa duen azalerari (1.494,96 ha); eta tarifaren kuota aldakorrek aplikatuzetik 2025ean hornituko eta bildu eta araztuko direla zenbatetsitako ur bolumenei. Bolumen horiek, hurrenez hurren, 23,8 milioi m³ eta 25,2 milioi m³ dira (ikus "Tarifa-proposamenaren azterketa").

Kide diren udalentsako tarifaren laburpena honako hau da (BEZa kanpo):

Kontzeptua	Neurri-unitateak	Tarifa
Hornidura-tarifa:		
Kuota finkoa	€/l/s/urte	961,5381
Kuota aldakorra	€-zentimo hornitutako m ³ -ko	26,6645
Saneamendu-tarifa:		
Kuota finkoa	€ azalera urbanizatuko ha-ko	1.197,4632
Kuota aldakorra	€-zentimo bildutako m ³ -ko	18,5398
Arazketa-tarifa:		
Kuota finkoa	€ azalera urbanizatuko ha-ko	1.292,2976
Kuota aldakorra	€-zentimo bildutako m ³ -ko	16,8150
Inbertsioen finantzaketa	€ / l / s / urte	0,0000

Bestalde, gainerako sarrerak etxeok ez diren erabiltzaile bereziei emandako saneamendu- eta arazketa-zerbitzuetatik datoz, eta bi mota hauetan sailkatzen dira:

- Batetik, Añarbeko saneamendu-sistema orokorretik datozenak: sarrerak kalkulatzeko, saneamendu eta arazketako termino aldakorrei —hurrenez hurren, 4,9 milioi m³-ri eta 4,6 milioi m³-ri aplikatzen zaienei— dagozkien termino finkoak gehitzen zaizkie: 332,5790 € eta 413,2110 € erabiltzaileak isuri dezakeen l/s bakoitzeko.
- Bestetik, Urumearen sistema erdi-autonomotik datozenak: sarrerak kalkulatu dira 7,1954 €-zentimo/m³-ko saneamenduko termino aldakor bat aplikatuz 6,3 milioi m³-tan zenbatetsitako bolumenari.

GECASari biogasa saltzeagatiko dirusarrerak

GECASak AUSARI transferitzen dion energia termikoaren gastua zehazteko eta baita ere AUSAK GECASARI transferitzen dion biogasaren dirusarrera zehazteko gas naturalaren prezioa erabiltzen da erreferentzia gisa, 2021eko erdialdera eta 2022ko amaiera bitartean oso maila altuan egon zena, 2023. eta 2024. urteetan maila moderatuagoan mantendu da. Ildo horretan, 2024rako kalkuluak egiteko erabili zen batez besteko prezioa 75 €/MWh izan bazen, 2025erako erabili den batez besteko prezioa 45 €/MWh izan da.

Prezio horren ondorioz, kontzeptu horrengatiko diru-sarrerak 2024rako aurrekontuan jasotakoak baino **350 mila euro gutxiago** izango dira.

GECASaren dibidenduengatiko dirusarrerak

Lehenik esan behar da irizpide berdina duela GECASA osatzen duen beste akzionistak, Energiaren Euskal Erakundea alegia, hau da, hurrengo ekitaldietako aurreikuspen ekonomiko-finantzarioak betetzen badira dibidenduak banatzen jarraitzekoa.

Hortaz, eta Sozietatearen aurtengo martxa ona dela kontuan izanik, GECASaren emaitza 2024an ona izango dela aurreikusten da. Hortaz, AUSAk 2025ean dibidenduetan izango duen dirusarrera **700 mila eurotan ibiliko da, hau da, 2024rako aurrekontuan sartutako zenbateko bera.**

Langile-gastuak

Langile-gastuei dagokienez, komeni da gogoratzea, lehenik eta behin, azken urteotan langileen ordainsariak Donostiako Udaleko langileen ordainsarien baldintza berberetan aldatu direla. Ildo horretan, 2025eko ekitaldirako langile-gastuen lehenengo zenbatespenak % 2,5eko igoera suposatuz egin dira.

Halaber, kontuan hartu dira AUSAko plantillan txanda-kontratuak direla-eta dagoeneko egin diren eta datozen hilabeteetan egingo diren mugimenduen eragin ekonomikoak: erretiroak, langile berriak, etab.

Aurreko paragrafoetan aipatutako alderdiak kontuan hartuta, 2025eko ekitaldirako langile-gastuak 2024ko ekitaldirako aurreikusitakoak baino **233 mila euro gehiago** izatea espero da.

Azpiegiturak konpontzea, mantentzea eta kontserbatzea

Sozietatearen jabetzako ondasunetan edo Sozietateari atxikitako Mankomunitatearen edo udal mankomunatuaren jabetzakoak diren ondasunetan aurreikusitako ekintzetan zenbatetsitako kostua, ekintza horiek ondasunen bizitza erabilgarria luzatzen ez dutenean.

125 mila euroko igoera aurreikusten da (769 mila eurotik 894 mila eurora igaroz). Igoera horren arrazoi nagusia da lohien lehorketa termikoa egiten den instalazioaren mantentze-kostuen igoera. Igoera 130 mila eurokoa izango da.

Energia elektrikoaren kontsumoagatiko gastuak

Epigrafe honi dagokion gastuaren aurreikuspena 2024rako egiteko, energia elektrikoaren oinarritzko prezioa 115 €/MWh hartu zen kontuan; merkaturatzailearekin ekitaldi honetarako itxitako prezioa. 2025. Ekitaldirako itxi den prezioa 75 €/MWh da; hortaz, epigrafe honetan **1,1 milioi euroko** aurrezpena aurreikusten da.

Energia termikoaren kontsumoagatiko gastuak

Kontseiluari dagoeneko azaldu zaion bezala, hurrengo hilabeteetan berriro martxan jarriko da lohien lehorketa termikoa. Ondorioak hauek izango dira: alde batetik, energia-kontsumoa igo egingo da eta, bereziki, kontsumo termikoa, zeina instalazioa gelditu aurretiko kontsumoetan jarriko den; bigarren, instalazioaren mantentzeari lotuta dauden kostuak igo egingo dira: eta, hirugarren, lohi hezeak kudeatzeagatiko kostuak ezabatu egingo dira; eta, azkenik, lohi lehorrak kudeatzeak eragingo dituen dirusarrerak (lohi

hezeak kudeatzea gastu bat da AUSArentzat, lohi lehorrak kudeatzeak, berriz, dirusarrerak eragiten dizkio).

Lehorketa termikoaren prozesua egiteko behar den energia termikoaren prezioari dagokionez, gaur egun dugun informazioaren arabera eta, lehen adierazi den modura, gas naturalaren prezioa 45 €/MWh-tan dago (2024ko aurreikuspenak egiteko erabili zen prezioa 75 €/MWh izan zen), eta kontsumoa 23 GWh izango dela aurreikusten da (2024rako 6 GWh aurreikusi ziren). Hori dela-eta, kontzeptu honengatiko kostuak **734 mila euro igoko dira**.

Lohi hezeen kudeaketa

Goiko atalean esan bezala, hau da, lohien lehorketa termikoa abian jartzearekin batera termikoki lehortutako lohien erabilerak zera ekarriko du: alde batetik, lohi hezeak kudeatzeko 2024rako aurreikusi ziren **600 mila euroak aurreztu egingo dira** eta, bestetik, **60 mila euroko dirusarrerak eragingo ditu**.

Erreaktiboan eta laborategirako materialaren hornidura

Petritegiko EUTEan urtegitik datorren ur gordina tratatzen da, eta Loiolako HUAN, berriz, saneamendu-sareetan bildutako ura. Atal honetan, tratamendu horietarako beharrezkoak diren erreaktibo eta produktu kimikoen hornikuntza-gastua adierazten da. Edateko uren eta hondakin-uren laborategietan beharrezko analisi klinikoak egiteko materiala eskuratzeko gastua ere jasotzen da.

Hori horrela izanik, 2024ko ekitaldiko AUSAren aurreikuspen-egoeretan 1.069 mila € sartzen ziren erreaktiboak hornitzeko gastuari aurre egiteko; 2025eko ekitaldirako aurreikusitako zenbatekoa oso antzekoa da, 1.066 mila €.

Laborategiko materialen kontsumoari dagokionez, 2024rako baino 16 mila euro gehiago aurreikusi dira, **279 milatik 295 mila** eurora pasatuz.

Aseguruak

Barne hartzen ditu, besteak beste, Sozietatearen erantzukizun zibileko eta ingurumen-erantzukizun zibileko kontingentziak eta kalte materialak estaltzeko kontratatutako polizen primak, bai beste erakunde batzuek atxikitako ondasunenak, bai Sozietatearenak. Era berean, Sozietatearen administratzaileen bizi-aseguruen eta erantzukizun zibileko aseguruaren polizetatik eratorritako gastuak biltzen ditu.

Tributuak

Sozietateak ordaindu behar dituen zerga-gastuak biltzen ditu atal honek. Horien artean, aipatzekoak dira, lehenik eta behin, azken ekitaldietan ordaindu izan direnak: Uraren Euskal Agentziaren lehorretik itsasorako isurketen kanona, ekonomia-jardueren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga, etab.

Uraren kanon berriaren arautze berriari dagokionez, eta 2022-24 aldian tarifa progresiboki ezarri ondoren (2022an, 2 euro-zentimo m³ bakoitzeko; 2023an, 2,5 euro-

zentimo m³ bakoitzeko; eta 2024an, 3 euro-zentimo m³ bakoitzeko), 2025rako ez dira aldaketa esanguratsuak espero 2024rako aurreikusitakoarekiko.

Beste enpresa batzuek egindako lanak

Funtsean, azpiegitura osatzen duten instalazioak ustiatu eta mantentzeko zerbitzuek sortzen dituzten gastuak biltzen ditu. Instalazio horien artean daude Añarbeko urtegia, EUTEa, biltegiak, ponpatze-estazioak, HUA, etab.

Ildo horretatik, 2020ko ekainaren 14an indarrean jarri zen AUSAk kudeatzen duen azpiegitura ustiatu eta mantentzeko egungo kontratua. Horren adjudikazioduna GOMENSL – ANSAREO INFRAESTRUCTURAS ABEEa izan zen.

Kontratu horrek ezartzen zuen, oro har, prezioa ez zela aldatuko prezioen indize orokorrek izandako aldakuntzaren arabera. Haatik, posible da kontratuaren bigarren luzapena ez egitea; beraz, hori horrela balitz, kontratu berria hurrengo urteko erdialdera sartuko litzateke indarrean. Orain eskuragarri dugun informazioaren arabera, kontratu honen kostua **400 mila eurotan igoko dela** aurreikusten da.

Finantza-gastuak

Atal honek biltzen ditu indarrean dauden mailegu- eta kreditu-polizetan ezarritako klausulen arabera finantza-erakundeei ordainduko zaizkien finantza-gastuak. Horiei gehitzen zaizkio, hala dagokionean, aurrekontua egiten den ekitaldian denetariko inbertsioak finantzatzeko formalizatu behar diren maileguen interesak.

Atal honetan ez dira aldaketa esanguratsuak espero 2024rako egindako aurreikuspenekiko.

Inbertsioak

Gehitutako inbertsioen xedea da goi-hornidurako zerbitzuak egiteko hornidura- eta saneamendu-azpiegitura osoa modu egokian eraikitzea, kontserbatzea eta ustiatzea eta, dagokionean, handitzea. Ildo horretatik, dokumentu honen eranskinean xehetasun handiz azaltzen da 2025erako aurreikusitako jarduketan helburua.

Zorpetze-amortizazioak

Atal honetan biltzen da inbertsioak finantzatzeko formalizatutako eta erabilitako mailegu-eragiketen amortizazioetarako aurreikuspena.

B.3. Laburpena kapituluka

Sozietatearen aurrekontua osatzen duten aurreikuspenak eta kredituak beren jatorri ekonomikoaren arabera antolatuta daude, indarrean dagoen aurrekontu-sailkapenari jarraituz. Hona aurrekontuaren laburpena kapituluka:

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
3	Tarifak eta bestelako sarrerak	24.033.340
5	Ondare-sarrerak	852.826
7	Kapital-transferentziak	4.310.198
8	Finantza-aktiboak	2.995.129
9	Finantza-pasiboak	1.251.390
Sarrerren egoera-orria guztira		33.442.883

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
1	Langile-gastuak	2.854.532
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	15.078.626
3	Finantza-gastuak	116.467
6	Inbertsio errealak	15.009.862
7	Kapital intsuldaketa	190.000
9	Finantza-pasiboak	193.396
Gastuen egoera-orria guztira		33.442.883

B.4. Kontu-sailkako xehetasuna

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
300.01	Biogas-salmenta	564.103
310.02	Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei saneamendu-zerbitzua ematea	1.345.996
310.02	Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei arazketa-zerbitzua ematea	685.061
343.01	Udalei hornidura-zerbitzuak ematea	8.461.535
343.02	Udalei saneamendu-zerbitzuak ematea	6.462.190
343.03	Udalei arazketa-zerbitzuak ematea	6.169.313
399.01	Bestelako sarrerak	345.142
III. kapitulua guztira		24.033.340
531.00	GECASaren dibidenduak	700.000
540.00	Alokairuak	82.826
560.00	Gordailuen interesak	70.000
V. kapitulua guztira		852.826
701.00	Transizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa	2.930.198
720.00	GFA: Behe-kanalaren alternatibarako ekarpena	1.380.000
VII. kapitulua guztira		4.310.198
880.00	Aurrekontua berdintzeko eragiketak	2.995.129
VIII. kapitulua guztira		2.995.129
933.00	Tokiko sektore publikotik kanpo jasotako epe luzeko maileguak	1.251.390
IX. kapitulua guztira		1.251.390
Sarrerren egoera-orria guztira		33.442.883

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
130.00	Langile lan-kontratudunak	2.233.280
160.01	Gizarte Segurantzako kuotak	579.919
160.04	Geroa kuotak	34.453
160.05	Laguntza mediko-farmazeutikoa	3.873
163.05	Bestelako gastu sozialak	3.007
I. kapitulua		2.854.532
20	Alokairuak	
202.00	Birmineralizazio-zisternak	33.600
21	Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa (KMK)	
212.00	Makinen, instalazioen eta tresnen KMK	886.182
213.00	Garraio-materialaren KMK	7.500
22	Materiala, hornigaiak eta bestelakoak	
220.01	Bulegoko materiala, inbentarioan sar ez daitekeena	21.000
220.02	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak	19.170
221.01	Energia elektrikoa	3.262.776
221.02	Ura	47.442
221.03	Energia termikoa	1.211.094
221.04	Erregaiak eta karburatzaileak	45.850
221.09	Garbiketako eta garbitasuneko produktuak	700
221.98	Bestelako hornigaiak – Erreaktiboak	1.065.704
221.99	Bestelako hornigaiak – Laborategiko materiala	295.000
222.00	Komunikazioak	121.679
224.02	Ibilgailuen aseguru-primak	7.342
224.03	Kudeatutako azpiegituraren aseguru-primak	162.658

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
224.99	Bestelako arriskuak	69.493
225.01	Udal-tributuak	62.593
225.02	Lurralde Historikoko tributuak	8.200
225.03	Erkidegoko tributuak	1.118.455
225.04	Estatuko tributuak	57.901
226.03	Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	83.000
226.04	Gastu juridikoak	101.300
226.99	Beste zenbait gastu	288.942
227.01	Garbiketa	32.554
227.07	Azterketa eta lan teknikoak	365.015
227.99	Azpiegiturak ustiatzeko eta mantentzeko kontrata	5.666.002
23	Zerbitzugintzaren ondoriozko kalte-ordainak	
230.00	Langileen dietak, lokomozioa eta joan-etorriak	34.274
231.00	Kontseiluaren eta Batzordearen dietak eta gastuak	3.200
II. kapitulua guztira		15.078.626
312.01	Epe luzeko zorraren interesak	116.467
III. kapitulua guztira		116.467
629.01	Azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hobetzeko obra konpartituetarako inbertsioak (Inbertsioen eranskina ikusi)	4.162.323
629.02	Mankomunitatea/AUSAren ekimeneko obra berrietarako inbertsioak (Inbertsioen eranskina ikusi)	2.154.330
629.03	Zerbitzuen ustiaketarekin lotutako inbertsioak (Inbertsioen eranskina ikusi)	3.989.741
629.04	PERTEEn sartutako jardueretatik eratorritako inbertsioak	4.703.468
VI. kapitulua guztira		15.009.853

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
720.0	Pasai Donibaneko saneamendurako ekarpena	190.000
VII. kapitulua guztira		190.000
933.00	Barnekoak, sektore publikotik kanpo	193.396
IX. kapitulua guztira		193.396
Gastuen egoera-orria guztira		33.442.883

B.5. Konpromiso-kredituen xehetasuna (zenbatekoak €-tan)

Deskribapena	24/12/31ra arte aurreikusitako exekuzioa	2025erako aurreikusitako gehikuntza	Ekitaldiko aurrekontua		
			2025	2026	2027
Urnietako hiri-sektoreak Añarbe sistemaren u-horniduran sartzea	3.300.000	0	662.323		0
Lezoko goi-hornidurako sistema hobetzea: 2 fasea	0	260.000	240.000	1.245.000	1.322.683
Hernaniko goi-hornidurako sistema hobetzea	0	400.000	200.000	1.200.000	400.000
Beheko Kanalaren Alternatiba	2.400.000	0	2.400.000	1.200.000	
Konpromezu-kredituak guztira	5.700.000	660.000	3.502.323	3.645.000	1.722.683
Besteren finantzaketa: GFA (BKA)	1.380.000		1.380.000	690.000	
Inongo finantzaketarik gabeko konpromezuak	4.320.000	660.000	2.122.323	2.955.000	1.722.683
2023ko diru-sarrera arrunten gaineko % (24.691.042 €)				%12	%7

B.6. Gastu arrunteko kapituluaren banaketa jardueren arabera

Kapitulua	HO	SA	AR	Guztira
Langile-gastuak	1.239.813	995.515	619.204	2.854.532
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	4.861.680	3.049.237	7.167.709	15.078.626
-Alokairuak	33.600	0	0	33.600
-Konponketak eta mantentze-lanak	204.563	286.520	402.599	893.682
-Hornidurak	1.309.691	657.683	4.001.362	5.968.736
-Komunikazioak	44.725	47.325	29.629	121.679
-Garraioak	0	0	0	0
-Aseguru-primak	78.685	89.747	71.061	239.493
-Tributuak	894.927	327.550	24.672	1.247.149
-Askotariko gastuak	119.209	124.837	229.196	473.242
-Beste enpresa batzuk egindako lanak (kontrata)	1.968.035	1.395.893	2.302.074	5.666.002
-Beste enpresa batzuk egindako lanak	193.816	106.200	97.553	397.569
-Kontseilua eta langileen dietak eta gastuak	14.429	13.482	9.563	37.474
Finantza-gastuak	44.318	42.733	29.416	116.467
Guztira	6.145.811	4.087.485	7.816.329	18.049.625

B.7. Inbertsioen eranskina

AUSAREN eginkizunetako bat da beharrezko inbertsioak egitea Mankomunitateak emakida-tituluaren ondorioz bere esku dituen baliabide hidraulikoen erabilera eraginkor eta egokiena bermatzeko. Horretarako, bere ardurako eta beharrezkotzat jotzen diren hornidura- eta saneamendu-azpiegitura guztien eraikuntza, mantentze eta ustiatze aproposa bermatuko du eta inbertsioak egingo ditu ere edateko ura hornitzeko eta hondakin- eta euri-uren goi-saneamenduko zerbitzua ahalik eta baldintza onenetan eman dadin, ingurumenaren eta Mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrietako biztanleen beharren mesedetan.

Hala, azken urteotan egin diren eta datorren 2025. urtean ere errepikatuko diren inbertsioen xedea da, batik bat, Mankomunitatearen/AUSAREN titulartasuneko goi-hornidurako eta goi-saneamenduko azpiegitura hidraulikoa zabaltzea, modernizatzea, birgaitzea eta hobetzea. Baina, egungo egoera ekonomikoaren ondorioz, Mankomunitatearen/AUSAREN titulartasuneko goi-hornidurako eta goi-saneamenduko azpiegitura hidraulikoa zabaltzera, modernizatzaera, birgaitzera eta hobetzera zuzenduriko zenbatekoak oso baxuak dira, sektoreak gomendatzen dituen doktrina eta ohiko praktikatik oso urrun.

Gauzak horrela, 2025. ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak ikus daitezke jarraian. Inbertsio horiek barne hartzen dituzte jarduketa berriak zein 2024ko aurrekontuan dagoeneko jasota dauden eta beren egikaritzea 2025eko ekitaldira luzatua izango duten jarduketak (zenbateko guztiak €-tan daude, BEZa kanpo):

B.7.1. Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2024ko aurrekontua	2025	Guztira
1 Hornidurako jarduketa partekatuak	660.000	3.502.323	4.162.323
Urnietako hiri-sektoreak Añarbe sistemaren ur-horniduran sartzea (1)	0	662.323	662.323
Lezoko goi-hornidurako sistema hobetzea: 2 fasea	260.000	240.000	500.000
Hernaniko goi-hornidurako sistema hobetzea:	400.000	200.000	600.000
Behe-Kanalaren eroanbide alternatiboaren eraikuntza	0	2.400.000	2.400.000
2 Saneamenduko jarduketa partekatuak	0	0	0
Partekatutako obrak guztira	660.000	3.502.323	4.162.323

B.7.2. Inbertsioak Mankomunitatearen/AUSAren ekimeneko obra berrietan

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2024ko aurrekontua	2024	Guztira
1 Hornidura	696.330	100.000	796.330
1.1 AHIBEP-Azpiegitura hidraulikoa berriztatzeko plana garatzeko jarduketak	0	100.000	100.000
AHIBEP Hornidura-azpiegiturak birgaitzea	0	100.000	100.000
1.2 1.2. Bestelako jarduketak	696.330	0	696.330
2 Saneamendua	696.330		696.330
2.1 AHIBEP-Azpiegitura hidraulikoa berriztatzeko plana garatzeko jarduketak	0	1.038.000	1.038.000
AHIBEP Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea	0	1.038.000	1.038.000
Ibaeta HUPEko bultzatzaileak luzatzea	0	100.000	100.000
Lastaolako kolektorea birgaitzea		773.000	773.000
ETPZ birgaitzea – Zona Ovoide - Karabel		100.000	100.000

2.2 Bestelako jarduketak		65.000	65.000
3 Obra txikiak	0	40.000	40.000
3.1 Hornidura		20.000	20.000
3.2 Saneamendua		20.000	20.000
4 Azterketak, proiektuak eta bestelakoak idaztea	0	80.000	80.000
4.1 Hornidura	0	40.000	40.000
Hornidurako obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa		25.000	25.000
Hornidurako hainbat proiektu	0	15.000	15.000
4.2 Saneamendua	0	40.000	40.000
Saneamenduko obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa		25.000	25.000
Saneamenduko hainbat proiektu	0	15.000	15.000
5 Obrak gauzatzeko lurzoruaren kudeaketa	0	200.000	200.000
Askotariko obrak egiteko lurzoruaren kudeaketa		200.000	200.000
Mankomunitatearen / AUSAren obra berriak guztira	696.330	1.458.000	2.154.330

B.7.3. Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2024ko aurrekontua	2025	Guztira
1 Hornidura Arloa	607.000	755.000	1.362.000
1.1 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE	110.000	345.000	455.000
Laneko segurtasun eta osasunerako ekipo eta sistemak		20.000	20.000
Klorazio, automatak eta Wimax komunikazioa sistemetarako ordezko kritikoak hornitu	0	15.000	15.000
EUTEko eraikinetako teilatuetako bizi-lerroak muntatzea		70.000	70.000
Erreaktibo- eta emari-neurgailuetako ponpa dosifikatzaileak aldatzea		90.000	90.000
Ozonizatu nahi den airea prestatzen duten ekipoak prestatzea	110.000	0	110.000
EUTEko kontrol-gela		150.000	150.000
1.2 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Sareak	47.000	100.000	147.000
Ilunbeko hustubidea hobetzea		30.000	30.000
1 eta 2 adarretako tuneletako hoditeriak birgaitu		70.000	70.000
Urruneko estazio berria Alaberga EUBBn	22.000	0	22.000
Hegoaldeko hargunea luzatzea, Aizpitarteko ur-biltegia ezabatzeke	25.000	0	25.000
1.3 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa	450.000	270.000	720.000
Presako hiribilduaren egokitzapena	450.000	0	450.000
Goiko harguneetan "bureau" uhateak birgaitu		30.000	30.000
DN 1500 ubidea birgaitu eta ainguraketak hobetu		40.000	40.000
Gainezkabideko uhateak mantendu		100.000	100.000
Presako ataria		100.000	100.000
1.4 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Orokorra	0	40.000	40.000
Hornidura-arlorako ibilgailua erostea		40.000	40.000
2 Administrazio Arloa	0	10.000	10.000
Altzariak eta bestelakoak		10.000	10.000
3 Kalitatea Kontrolatzeko Arloa	0	195.000	195.000
3.1 Edateko uren laborategirako material eta ekipoak erostea	0	180.000	180.000
Erauzketa fase solido automatizatuan		50.000	50.000
Altzariak		125.000	125.000
Zenbait ekipo erosi		5.000	5.000
3.2 Hondakin-uren laborategirako material eta ekipoak erostea	0	15.000	15.000
"He" lerroa instalatu gas-kromatografoan		10.000	10.000
Zenbait ekipo erosi		5.000	5.000
4 Proiektuak eta obrak arloa	0	40.000	40.000

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2024ko aurrekontua	2025	Guztira
Ibilgailua		40.000	40.000
5 Saneamendu Arloa	399.001	1.803.740	2.202.741
5.1 Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA	399.001	1.698.740	2.097.741
Dekantagailuetako kateetarako moldeak eta kate-horniketa bi dekantagailuetarako		175.000	175.000
Ekintzen plana		20.000	20.000
HUAko irteerako gainezkabidearen kutxatila aldatu		30.000	30.000
Sei dekantagailuak estali		300.000	300.000
Obrak HUA n - Bulegoak		400.000	400.000
Obrak HUA n - Fatxada		500.000	500.000
Lehorketa termikorako ordezeko piezak		123.740	123.740
HUAko kontrol-gela		150.000	150.000
Lehorketa termikoko kondentsadorea aldatu	65.000	0	65.000
HUAko iriste-obrako 4. Lerroko bultzatzaileak	61.543	0	61.543
Loiolako HUAko bisiten gela	272.458	0	272.458
5.2 Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak	0	105.000	105.000
Oraingo ponpen ordezkari energetiko handiko ponpak jarri		85.000	85.000
SAko instalazioetako LAPeko ekintzak		20.000	20.000
6 Teknologia eta berrikuntza	0	180.000	180.000
Sistema-proiektuen garapena		75.000	75.000
Zibersegurtasuneko sistemen proiektuen garapena		75.000	75.000
TB ekipoen horniketa		30.000	30.000
Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak guztira	1.006.001	2.983.740	3.989.741

B.7.4. Uraren PERTE digitalari lotutako inbertsioak

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2024ko aurrekontua	2025	Guztira
1 Hornidura Arloa	2.011.348	0	2.011.348
1.1 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE	122.666	0	122.666
Komunikazio-Sarea berrantolatu eta hobetu	122.666	0	122.666
1.2 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Sareak	1.243.690	0	1.243.690
Urnieta, Hernani eta Lezoko ur-bilketen buruzko datuak hartu eta dokumentazioa digitalizatu	14.900	0	14.900

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2024ko aurrekontua	2025	Guztira
Hornidura sareko datuak hartu	52.474	0	52.474
Beheko Kanala birgaitzeko alternatiben azterlana: jasotze topografikoa, eskaneatzea eta alternatiben azterlana	194.895	0	194.895
Hornidurako Plan Integralak idatzi: sareen modelizazioa, sektorizazioa, hornidura bermea aztertu, ihesak aztertu, hobekuntzak proposatu	25.000	0	25.000
Uraren kalitateari buruzko Zuzentaraua betetzea aztertu	115.077	0	115.077
Edateko ura banatzeko sareek sektorizazioa: mozketa-balbula, emari-neurgailuak eta manometroak instalatu	191.344	0	191.344
Petrítegiko EUTEko eta sareetako autokontsumo energetikorako obrak gauzatu	650.000	0	650.000
1.3 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa	644.992	0	644.992
Añarbeko urtegiko jasotze topografikoa	1.510	0	1.510
Presa kontrolatzeko eredu meteorologikoa	20.000	0	20.000
Urtegiaren inguruko eredu hidrológikoa	25.000	0	25.000
Uholdeen eta lehorteen kudeaketa kontrolatzeko sistemaren eredu hidraulikoa	25.000	0	25.000
Presan eta hornidurako harguneetako elementuetan neurketa-ekipoak instalatu	437.482	0	437.482
Datu meteorologikoak denbora errealean hartzeko hobekuntzak	26.000	0	26.000
Urtegiko uraren gainean plaka fotovoltaikoak jartzeko azterlana eta proiektua	60.000	0	60.000
Aerogeneradoreak jartzeko azterlana eta proiektua	50.000	0	50.000
2 Administrazio eta Teknológiako Arloak	731.018	0	731.018
Administrazio-kudeaketaren digitalizazioa (ERP)	84.172	0	84.172
Bisore kartografikoan hobekuntzak(GIS)	64.147	0	64.147
Mantentze-lanen kudeaketa-sistema hobetzea (GMAO)	100.000	0	100.000
Plano elektrikoen digitalizazioa osatzea Hornidura eta Saneamenduan (Eplan)	70.000	0	70.000
Kontrol-sistema bateratu berria garatzea (SCADA +)	200.799	0	200.799
Zibersegurtasunaren arloko kontzientziazio-programa	12.000	0	12.000
WEB orria hobetu	12.000	0	12.000
Uraldietan hiritarrei informazioa emateko web aplikazio bat garatu	13.900	0	13.900
Datuak partekatzeko plataforma	150.000	0	150.000
Efizientzia energetikorako zentro bat sortu	24.000	0	24.000
3 Saneamendu Arloa	1.961.102	0	1.961.102
3.1 Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA	13.799	0	13.799
Loiolako hondakin-uren araztegiaren eguneraketa topografikoa	13.799	0	13.799
3.2 Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak	1.947.303	0	1.947.303
Saneamendu sareen datuak hartzea eta Saneamenduko gainezkabideak eta instalazioak altxatzea	36.738	0	36.738
Saneamendu-plan integralak idaztea: egungo egoera, hondakin-uren saneamendu-sareen funtzionamenduari, modelizazioari eta sektorizazioari buruzko datuak.	70.000	0	70.000
Saneamendu-sareen egoera aztertzea eta zehaztea	60.000	0	60.000
Ingurumenari buruzko legeria betetzeko prozesuak digitalizatzea	91.190	0	91.190

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2024ko aurrekontua	2025	Guztira
Saneamendu-sistemaren energia-hobekuntzako prozesuak digitalizatzea (HUA eta sareak)	170.000	0	170.000
Isurketaren inpaktua eta sareetan oso kutsatzaileak diren enpresen analisiak denbora errealean	159.634	0	159.634
Saneamendu-sisteman parametro batzuk "online" neurtzeko ekipoak, AUSAtik kudeatzen direnak (eroankortasuna, uhertasuna, eroankortasuna, pH-a, emari-neurgailuak)	267.174	0	267.174
Loiolako HUAren eta saneamendu-sareen energia-autokontsumorako energia-optimizaziorako obrak egitea	150.000	0	150.000
Efluentearen kantitatea eta kalitatea ingurune hartzaileara neurtzeko ekipoak (sareak eta gainezkabideak) proiektatzea, instalatzea eta mantentzea	520.097	0	520.097
Ingurune hartzaileko hondakin-uraren kalitateari buruzko zuzentaraua betetzeari buruzko azterlanak	102.870	0	102.870
Datuak prozesatzeko zentroak egokitzea (DPZ)	90.000	0	90.000
Konputatzeko gaitasuna hobetzea	67.000	0	67.000
IT/OT sareak segmentatzea eta bereiztea	50.000	0	50.000
Azpiegitura sensibleak ebaluatzeko planak idaztea	14.900	0	14.900
Backup plataforma zentralizatua	49.300	0	49.300
OT ekipoen bertsioak eta backup-ak kudeatzeko tresna bat ezartzea	13.600	0	13.600
Lanpostuaren segurtasuna handitzea	12.900	0	12.900
Zerbitzarien bastionatua	7.300	0	7.300
Uraren sektorerako alerta goiztiarreko sistema zehatz bat ezartzea	14.600	0	14.600
Zerbitzuak ustiatzearekin lotutako inbertsioak, guztira	4.703.468	0	4.703.468

B.7.5. Inbertsioak guztira

Inbertsio mota	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2024ko aurrekontua	2025	Guztira
Azpiegitura handitzeko eta hobetzeko obra partekatuetan egindako inbertsioak	660.000	3.502.323	4.162.323
Mankomunitatea/AUSAren obra berriak	696.330	1.458.000	2.154.330
Zerbitzuak ustiatzearekin lotutako inbertsioak	1.006.001	2.983.740	3.989.741
PERTE	4.703.468	0	4.703.468
Guztira	7.065.799	7.944.063	15.009.862

B.7.6. Inbertsioen memoria

7.6.1 Azpiegitura hidraulikoa handitzeko eta hobetzeko obra partekatuetan egindako inbertsioak

*** Urnietako hiri-sektoreak Añarbe sistemako ur-horniduran sartzea**

Jarduera honen helburua gaur egun sistema propioen bidez hornitzen diren Urnietako eremuak (horretarako udalerriko ur-hartuneak eta Oiamar, Goikoetxe, Armuntto eta Lizarratxoeko deposituak erabiliz) Añarbe sistematik datorren urarekin hornitzea da.

Obrak 2023an esleitu ziren eta 2025ean amaituko direla aurreikusten da, aurrekontuko zuzkidura 662.323 euroko da.

*** Finantzaketa partekatua duten beste jarduerak**

Hainbat erakunderekin sinatutako hitzarmenen parte diren hainbat jarduerak daude.

Jarduketa horietarako 2025erako aurreikusitako zuzkiduren banaketa, 3.500.000 €-koa, honako hau da:

Jarduketa	Zenbatekoa
Lezoko ur-hornidura sistema hobetzea: 2 fasea	500.000
Hernaniko ur-hornidura sistema hobetzea	600.000
Behe Kanalaren eroanbide alternatiboa	2.400.000

Dokumentu honen 5. atalean ikus daitekeenez, jarduerak horietarako 5.367.683 €-ko baterako zenbatekoa aurreikusteaz gain, 2026ko eta ondorengo ekitaldietarako aurrekontu-izendapenak ere aurreikusi dira:

Jarduketa	Zenbatekoa
Lezoko ur-hornidura sistema hobetzea: 2 fasea	2.567.683 €
Hernaniko ur-hornidura sistema hobetzea	1.600.000 €
Behe Kanalaren eroanbide alternatiboa (1)	1.200.000 €

(1) GFAk % 57,5eko ekarpena egitea aurreikusten da.

B.7.6.2. Obra berrietan egindako inbertsioak, Mankomunitatea/AUSAren ekimenez

Atal honetan jasotzen diren inbertsioak gauzatzearen kudeaketa, oro har, Proiektuak eta Obrak arloari dagokio, aldiz, B.7.6.3. ataleko obrak, normalean, dagokion arloak kudeatzen ditu.

Hornidura

*** AHIBEPre jarduketak - Azpiegitura hidraulikoa birgaitzeko plana:**

Jarduketa horiek funtsezko garrantzia dute azpiegituren bizitza erabilgarria luzatzeko orduan, haien baldintza funtzional egokiak mantenduz eta denboraren poderioz gertatzen den narriadura progresiboa eta higadura saihestuz.

Jarduera horretarako, 2025erako 100.000 euroko aurrekontua aurreikusi da.

* **Petritegiko EUTEko kontrol-eraikina handitu**

Biztanleen kontsumorako uren kalitateari buruzko dekretu berriak eskatzen du parametro berriak kontrolatzea eta aztertzea, eta horien jarraipen zorrotza egitea.

Petritegiko edateko uren laborategian parametro horiek analizatzeko ekipo berriak jarriko direnez, horiek kokatu ahal izateko laborategia handitu egin behar da eta, ondorioz, EUTEko kontrol-eraikina berrantolatu egin behar da.

Jarduera honentzako aurrekontua 696.330 eurokoa da.

Saneamendua

* **AHIBEPren jarduketak - Azpiegitura hidraulikoa birgaitzeko plana:**

Jarduketa horiek funtsezko garrantzia dute azpiegituren bizitza erabilgarria luzatzeko orduan, haien baldintza funtzional egokiak mantenduz eta denboraren poderioz gertatzen den narriadura progresiboa eta higadura saihestuz.

Jarduera horretarako, 2025erako 100.000 euroko aurrekontua aurreikusi da.

* **Donostiako San Martin kalean metrora iristeko oinezkoentzat egingo den pasabidearen gainean saneamenduko eroanbide bat gauzatzea – Ibaetako bultzatzaileak luzatzea**

AUMAk egin duen mugaketa-prozesuaren ondorioz, bai AUSAko zerbitzu-teknikoek bai Donostiako Udalakoek adostu zuten zenbait obra egitea Donostiako erdiguneko saneamendua hobetu eta optimizatzeko; hain zuzen ere, goi-saneamendua luzatuz eta, aldi berean, erdiguneko kaleetako saneamendu-sareetara iristen diren emariak jaso ditzan.

Helburu horrekin erabaki zen Ibaeta HUPEko bultzatzailea luzatzea, Mirakontxa pasealekuko 12 zenbakiaren inguruan dagoen karga-hausturaren kutxatilatik Santa Katalina HUPErako (Foruen pasealekuaren eta Askatasunaren hiribidearen bidegurutzean).

2021. urtean, Donostiako Udalak “Donostiako San Martin eta Zubieta kaleetako zirkulazioaren norabidea aldatzeko proiektua”ren obrak egitera zihoala aprobetxatuz, hitzarmen bat sinatu zen udal horren eta AUMAREN artean goian aipatu den obra gauzatzeko, alegia, Ibaeta HUPEko bultzatzailea luzatzeko, Mirakontxa pasealekuko 12 zenbakitik San Martin eta Lersundi Generalaren kaleen arteko bidegurutzeraino. Helburua zen eremu berdinean egitekoak ziren bi obrak batera egitea, biztanleei egingo zitzaizkien eragozpenak gutxitzeko. Obrak 2022. urtean amaitu ziren.

Helburu berdinarekin, 2021ean bigarren hitzarmen bat sinatu zen, kasu honetan Euskal Trenbide Sarea / Red Ferroviaria Vasca-rekin (aurrerantzean, ETS), San Martin kaletik zehar saneamenduko ubide berri bat eraikitzeko, Urbietta eta Loiola kaleen artean, “*Construcción del tramo Miraconcha-Easo del metro de Donostialdea Fase 2*” obrekin batera.

ETS egiten ari den obren eragina kasu askotan inguruko kaleetara iristen dela ikusirik, bi aldeek, eta Donostiako Udalak ere, egokitzat jo dute metroaren obren inguruabarra aprobetxatuz hasiera batean aurreikusi ziren saneamenduko obrak bi muturretan zabaltzea. Horri esker, mendebaldetik ubidea luzatuko litzateke San Martin kaleko 44 zenbakiraino (Urbietta kalea erabat gurutzatuz), eta ekialdetik, San Martin kaleko 8raino (Hondarribia kalea gurutzatuz). Helburu horrekin, 2021eko hitzarmenaren gehigarri bat sinatu da 2024. urtean.

Saneamenduari dagokion jarduketa honek aurreikusten du: 600 mm-ko diametrodun burdinurtu harikorreko bi hoditeria eraikitzea. Hoditeriekin batera gauzatuko dira: fabrikako obrak, erregulazio-elementuak eta goi-saneamenduko telekontrol-sistemarako kanalizazioak.

Jarduketa honen aurrekontua honela finantzatuko da: 2021eko hitzarmenean aurreikusi zen zatia ETSek, eta zati hori handitzeko egingo diren obrak Mankomunitateak (773.000 euro).

* **Lastaolako kolektorea birgaitzea:**

1987. urtean eraiki zenetik gaur arte, kolektore honek jaso ditu Epele, Lastaola eta Ibarluze poligonoetako ur beltzak, eta Ereñotzu, Fagollaga eta Epeleko landa-guneetako hiri-urak.

Azken urteetan, kolektorea osatzen duen 500 mm-ko diametrodun hormigoizko hoditeria kaltetua dagoela ikusi da; beraz, Epele HUPEko bultzatzailea aldatu behar da. Beirazko zuntzez sendotutako poliesterreko hoditeria jarriko da, Ibarluze poligonoan kolektore zati bat jarriko da, eta Urumea ibaiaren azpian dagoen sifoiak ezabatu egingo da, zeinak eraso kimiko larri bat izan baitzuen.

Jarduketak aurreikusten du: kolektorea birgaitzea eraso kimikoak erresistitzen dituen beira-zuntzez egindako mahuka baten bidez, egungo hodiaren barrualdetik jarriko dena Ibarluze poligonoan, Lastaolako poligonora sartzeko zubiaren eta antzinako Lastaolako zentral hidroelektrikoaren zubiaren artean. Zati honen egoera eskasa da.


Jarduera horretarako, 2025erako 100.000 euroko aurrekontua aurreikusi da

* **ETPZ birgaitzea – Portu auzoko guneko oboidea:**

Hernaniko udalerrian dagoen Eziago industrialdean kokaturik dagoen Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga, SA enpresak saneamendu-sistema independentea du bere prozesuko urak tratatzeko. Fabrikako araztegiaren irteera AUSAren saneamendu sistema orokorrarekin lotzen duen kolektore eskusibo bat du.

Kolektore hori, Zicuñaga paper-fabrikaren lurreko hustubidea izenarekin ezagutzen da (gazteleraz ETPZ), 2011. urtean eraiki zen eta AUSAk kudeatzen du.

Instalatua dagoen hoditeria 500 mm-ko diametroa duen dentsitate handiko polietilenoakoa da (PE-100) eta 6.082 metroko luzera du. Ubidearen trazaduraren zati handi bat Urumea kolektorearen barrualdetik igarotzen da; horietako bat Portu eta Karabel auzoen arteko zatia da.



Zati honetan, ETPZ kolektorea oboidearen klabean kokatzen da, altzairu herdoilgaitzezko euskarri batzuen gainean.

Kolektore handietan urtero egiten diren ikuskapenetan ikusi da galeria horietan ainguratuta dauden habe metalikoak kaltetuak daudela. Ubideak dituen kontrakzio eta dilatazio mugimenduek sostengu-habeen biratze garrantzitsuak eragin ditu, habeen sostenguak bortxatuz eta, zenbait puntutan, polietilenoak hodia ere kaltetuta dago. Beraz, hodiaren sostengu sistema erabat aldatu egin behar da.

Jarduera honen aurrekontua 65.000 eurokoa da.

Hornidurako eta saneamenduko obra txikiak

Esperientziak agerian uzten du urtero sortzen dela zenbait jarduketa premiaz egiteko beharra, eta horiek duten zenbatekoagatik eta izaeragatik zuzenean Añarbeko Urak-eko teknikarien taldeak erabakitzen dituzte. Hori dela-eta, komeni da aurrekontuan obra horiek kontuan izatea. Aurtengo aurrekontuan zenbateko hori txikiagoa izango da egungo egoera ekonomikoagatik.

2025erako aurreikusten dira 20.000 euroko bi partida, bat hornidurarako eta bestea saneamendurako.

Azterlan eta proiektuen idazketa

Ohikoa denez, gorago azaldu diren inbertsioak gauzatzeko horiei dagokien zenbatekoak Inbertsioen Eranskinean ageriko dira.

Hornidura

*** Hornidura-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legeriak eskatzen du egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten enpresa edo profesionalak izendatzea. Horiek beharrezko gaikuntza izan beharko dute.

Añarbeko Urak erakundearen tamaina kontuan izanda, zeregin horiek kanpora aterako dira eta 25.000 €-ko aurrekontu-zuzkidura ezarri da nahitaezko eginkizun horretarako, zeina hornidura zein saneamenduko obretan aplikatuko baiten.

*** Hornidurako zenbait proiektu**

Ekitaldian zehar jarduketaren bat egiteko beharra izango balitz, eta horretarako proiektua egin behar bada eta hori kanpoko ingeniarietza batek egitea nahi bada, 15.000 euroko aurrekontua aurreikusten da.

Saneamendua

*** Saneamendu-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legeriak eskatzen du egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten enpresa edo profesionalak izendatzea. Horiek beharrezko gaikuntza izan beharko dute.

Añarbeko Urak erakundearen tamaina kontuan izanda, zeregin horiek kanpora aterako dira eta 25.000 €-ko aurrekontu-zuzkidura ezarri da nahitaezko eginkizun horretarako, zeina hornidura zein saneamenduko obretan aplikatuko baiten.

*** Saneamenduko zenbait proiektu**

Ekitaldian zehar jarduketaren bat egiteko beharra izango balitz, eta horretarako proiektua egin behar bada eta hori kanpoko ingeniarietza batek egitea nahi bada, 15.000 euroko aurrekontua aurreikusten da.

Obrak gauzatu ahal izateko lurzoru-kudeaketa

AUSAren inbertsioen barruan, ohiko atala da obrak egikaritzeko lurzorua kudeatzera zuzendutakoa. Horrek balio behar du, bai Mankomunitateak eraiki beharreko azpiegiturak hartuko dituzten lurzoruen jabeei eman beharreko kalte-ordainei

erantzuteko, bai, hala badagokio, hori kudeatzeko kontratatutako kanpoko zerbitzu teknikoak ordaintzeko.

200.000 €-ko aurrekontua dago ekintza honetarako.

B.7.6.3 Zerbitzuak ustiatzarekin lotutako inbertsioak

Hornidura, Saneamendu, Kalitate Kontrol, Administrazio, Proiektu eta Obrak eta Teknologia eta Berrikuntza arloek egin beharreko inbertsioak dira.

Zerbitzu egokienak ematea eta instalazioak berritzea, birgaitzea edo eguneratzea dute helburu, oro har elektromekanikoak eta elektronikoak, ekipamenduen zaharkitzea saihesteko, askotan katalogoa kentzeagatik edo balio-bizitza amaitzeagatik. Ondasunak erostea ere sartzan da, hala nola laborategiko aparatu analitikoak, ekipo informatikoak eta ofimatikoak, ibilgailuak, etab.

Guztira, 3.989.741 € izango dira hurrengo ekitaldirako. Hona hemen xehetasunak:

Hornidura Arloa

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE

455.000 €-rekin, inbertsio txikiagoei ekin nahi zaie ekipo eta sistemetan, helburu hauekin:

* **Segurtasun- eta osasun-jarduerak (20.000 €)**

Instalazioen segurtasuna hobetzeko. Instalazioetako arriskuen edo ustiapeneko langileek antzemandako gabezien ebaluazioak berrikustean sortu dira ekintza horiek, eta Añarbeko azpiegituraren ustiapen- eta mantentze-zerbitzuen enpresa esleipendunaren segurtasun-batzordeari jakinarazi dizkio.

* **Wimax komunikazio, automata eta klorazio sistemarako ordezkoko pieza kritikoak eskuratzea**

Ekipo kritikoak ordezkoko aktiborik ez izateagatik (adibidez, erreserbako ekipo instalatu bat) edo elementu bakarra izateagatik (adibidez, kontrol-automata ez-erredundante bat) prozesua eteten dutenak dira. Prozesu kritikoei ahalik eta denbora laburrenean jarraipena ematen saiatzeko, beharrezkoa da ordezkoko piezak edukitzea klorazio-sisteman (balbula erregulatzaila, injektorea, etab.); kontrol-automatak (txartel prozesatzaileak, komunikazioak, sarrerak, irteerak, etab.); eta Wimax komunikazio-sistema (antena, lotura-prozesadorea, etab.).

Ekintza honen zenbatekoa 15.000 eurokoa da.

* **Bizi-lerroen muntaketa EUTEko eraikinen estalkietan**

EUTEko eraikinen estalkiek 40 urte baino gehiago dituzte eta konpondu beharreko arazo puntualak ageri dituzte. Bestalde, erretenak garbitzea kasu batzuetan zaila izaten da, haien kokapena dela eta. Estalkietara igotzea segurtasunez egin ahal izateko, bizi-lerro ziuertatuak jarriko dira estalkietan, garbiketa eta mantentze lanak egin ahal izateko.

Ekintza honetarako 70.000 euro aurreikusten dira.

* **Ponpa dosifikatzaileak eta errektiboan emari-neurgailuak aldatzea**

EUTEn ponpa dosifikatzaileak daude, tratamendu-prozesuaren puntu desberdinetan behar diren errektiboak injektatzeko. Ponpa dosifikatzaile digital berriak jartzea aurreikusten da, prozesua SCADatik hobeto kontrolatua izan dadin, horien zerbitzu maila hobetuz eta dosifikatzen diren emariak eta bolumenak hobeto kontrolatuz.

Ekintza honetarako 90.000 euro aurreikusten dira.

* **Ozonizatu nahi den airea prestatzeko ekipoak hobetzea**

Aire ozonizatua sortzeko sistemetan abian dauden hobekuntzen artean aurreikusten da: bero-trukagailuak eta hozte-sistemak aldatzea, arazo ugari eragiten ari baitira, hozte-sistemako urek trukagailuen materiala zulatzen ari baitira.

Aldaketa honi esker ozonizazio-prozesuaren errendimendua hobetzea aurreikusten da, eta makinaren erabilgarritasun indizea handitu, urtegiko estratifikazio fasea hausten denean manganesoa igo egiten baita eta ozonoa behar izaten da oxidazioa egiteko.

Ekintza honen aurrekontua, 110.000 eurokoa da.

* **EUTEko kontrol-gela**

Orain dela gutxi esleitu da EUTEko kontrol-gela jasotzen duen eraikinaren birmoldaketa. Ondorioz, kontrol-gela lekuz aldatuko da, goiko solairutik beheko solairura jaitsiko da. Jarduketa honek aurreikusten ditu altzariak eta prozesuaren pantailak ikusteko sistemak.

Ekintza honen aurrekontua, 150.000 eurokoa da.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Sareak

* **1. Adarreko Illunbeko isurbidea hobetzea**

Amara EUBBeko sarrerako 1. Adarra ibarbide batetik igarotzen da, eta ospitaletara doazen errepedeak egiterakoan eragin handiak izan zituen. Segurtasun neurri gisa, trazadura babestu zen lurpean ireki zen galeria baten bidez. Galeria honek puntu baxu bat du eta bertan adarraren hustutze-balbula bat dago (gehienetan urez betea egoten da). Jarduketa honi esker saihestu nahi da ura galeriara sartzea.

Ekintza honen aurrekontua 30.000 eurokoa da.

* **1 eta 2 adarretako tuneletako hoditeriak birgaitu**

Banaketarako adarretan 5 tunel daude non hoditeria bistan dagoen. Zati horietan kalte puntualak ageri dira bai tunelaren estalduran bai hoditerian. Azken honen kasuan ikusi diren kalteak dira kanpoko estaldurako hormigoiaaren kaltetzea eta hormigoiak babesten ez dituen hoditeriaren zati metalikoen oxidazioa. Inbertsio honen bidez kalteak dauden lekuetan jardungo da.

Ekintza honen aurrekontua, 70.000 eurokoa da.

* **Urruneko estazio berria Alaberga EUBBan**

Obrak 2022an hasi ziren eta 2023an amaitu, giltzen ganberan aldaketak egin ziren eta ontzi baten ordeztu bi ontzi eraiki ziren gainontzeko ur-biltegietan bezala. Egitear daude automata egokitzea eta instalazioaren tokiko kontrola. Ekintza honen bidez egungo automataren ordeztu automata berri bat jarri nahi da.

Ekintza honen aurrekontua 22.000 eurokoa da.

* **Hegoaldeko landa eremuko hargunea zabaldu Aizpitarteko ubidea ezabatzeko**

Ura Aizpitartetik Juanantonenea EUBBra eramaten duen ubidea oso luzea da, aspaldikoa, fibrozementuzkoa eta orografia oso konplexua duen lurra igarotzen ditu. Horren ondorioz, hoditeria horren ur galera izugarriak ditu. Ekintza honen bidez lortu nahi da ura zuzenean Añarberen saretik hartu, Ermita EUBBetik, eta Errenteriako eta Astigarragako landa eremuetara eraman.

Ekintza honen aurrekontua 2024rako 25.000 euro zen eta 2023tik zeterren.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa

* **Presako etxearen egokitzapena**

Hamar urte dira presan dagoen etxearen behealdea egokitu zela ustiapen eta kontrol zerbitzuen erabilerarako. Goiko solairuak, berriz, ez dira erabiltzen presako langileak erretiroa hartu zuenetik. Proiektu bat idaztea aurreikusten da, eta etxearen goiko solairuak berritu nahi dira erabilera anitzetarako: bilera gela, larrialdietan bertan lo egin ahal izateko gela bat, sukaldea eta erabilera anitzeko gela bat.

Ekintza honen aurrekontua 2024rako 100.000 euro zen eta 2025erako 450.000 eurora igotzen da.

* **Presako goiko harguneetan “bureau” uhateak birgaitu**

Añarbeko presan bi hargune daude hornidurarako, *bureau* motako balbulekin. Bi ekipamendu horiek babes-pintura berria behar dute. Egin behar diren lanak dira:

harea txorrotada baten bide azalera sakontasunez garbitu eta balbulak berriro margotu.

Ekintza honen aurrekontua 30.000 eurokoa da.

* **DN 1500 ubidea eta ainguraketak hobetu**

2016. urtean Añarbeko presako ezkerreko hondoko hustubidean aldaketak egin ziren. 1.500 diametroko hoditeria behartua jarri zen eta bertan balbula erregulatzailer berri bat jarri zen, ura modu kontrolatuan isuri ahal izateko, gehienez 15 m³/s-ko emariarekin. Iaz hoditeria horren barrualdea ikuskatu zen eta hoditeriaren egoera ona zela ikusi zen. Aldiz, hoditeriaren kanpoaldeko puntu batzuetan korrosioa ageri da.

Bestalde, hoditeriaren ainguraketa altzairuzko xaflen bidez egiten da “metala-metala” kontaktuaren bidez. Ekintza honen bidez lortu nahi da hoditeriaren korrosioaren arazoari konponbidea ematea, eta honen sostengua hobetzea neoprenozko junturak jarritz.

Ekintza honen aurrekontua 40.000 eurokoa da.

* **Gainezkabideetako uhateak mantendu, junturak aldatu eta pintura**

Añarbeko presak gainezkabideko hiru uhate ditu, “Taintor” motakoak. Neurriak dira, gutxi gorabehera, 8,5 metro luzera eta 4 metro altuera. Uhate horien eginkizuna da: urtegia gainezka-kotatik gora betetzen denean urak bertan eustea, hustuketa kontrolatua egiteko aukera iritsi bitartean, hondoko isurbideen bidez eta uhateak irekiaz. Orain dela 20 urte uhateak margotu egin ziren. Azkenaldian pintura altxatzen ari dela ikusi da, itsaspenera galdu duelako. Uhateak sakonki birgaitzea aurreikusten da, harea-txorrotadaren bidez egungo pintura erabat kendu eta pintura-tratamendu berri bat jartzea. Jarduketa aprobetxatuko da uhateetako gomazko junturak aldatzeko, uhateen oinarrian eta aldamenetan, uhatearen estankotasuna bermatzen baitute.

Lanak arriskua dute egin behar diren kokapenetatik, eta segurtasuna bermatzeko aldamioak instalatu behar dira.

Ekintza honen aurrekontua 100.000 eurokoa da.

* **Atari bat eraiki presan**

Azken urteetan, ikasleek presara egiten dituzten bisiten maiztasuna asko igo da, bai pertsonen kopurua baita maiztasuna ere. Hori dela-eta, ohikoa da bisitak bi taldetan banatzea, eta talde batek itxaron behar izaten du beste taldearen bisita amaitu bitartean.

Kontuan izanik, presan ez dagoela une horietan bisitariak hartzeko esparru egokirik, presako sarreran atari bat eraikitzea aurreikusten da, bisitariak babesteko edo haien atsedenerako.

Ekintza honen aurrekontua 100.000 eurokoa da.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Orokorra

*** Arloko teknikarientzat kabestrantea duen ibilgailu berria**

Presako pista perimetralaren eta atxiki dituen guneen egoeraren ondorioz ibilgailuak asko kaltetzen dira eta matxura ugari izaten dituzte. Ondorioz, eta egungo ibilgailuaren antzinasuna dela-eta, lur orotako ibilgailu bat erostea aurreikusi da, industria-erabilerarako eta haren prestazioak hobetzeko. Osagarri batzuk jarriko dira, hala nola kabestrante bat edo pneumatiko mistoak, urarekin edo lokatzarekin gidatzen den egoeretan heldulekua eta trakzioa hobetzeko.

Ekintza honen zenbatekoa 40.000 eurokoa da.

Administrazio Arloa

Administrazio-zerbitzuei lotutako inbertsioak:

*** Altzariak eta bestelakoak**

10.000 euroko aurrekontua, 2025eko ekitaldian arlo honen behar berriei erantzuteko.

Kalitate Kontroleko Arloa

195.000 euroko aurrekontuarekin, inbertsio txikiak egin nahi dira ekipo eta sistemetan.

Edateko uren laborategirako materiala eta ekipoak erostea

*** Mikrokutsatzaile organikoak aztertzeke fase solidoko erauzketa-sistema automatizatua**

Legearen azken betekizunek eskatzen dute mikrokutsatzaile organikoak aztertzea kontzentrazio oso-oso txikietan. Erabiltzen diren ekipoek askotan ezin dute analisia egin zuzenean ur-laginean, eta horregatik, aurretik, aztertu nahi diren konposatuak erauzi egin behar dira horien kontzentrazioa handitzeko eta interferentziak ezabatzeko. Gaur egun prozesu horiek eskuz egiten dira, lanordu asko eskatzen dutenak, eta errore-arrisku nahiko handia dute. Erauzketa-prozesu horiek automatikoki egiten dituen sistema automatizatu bat erostea proposatzen da.

Jarduketa honi 50.000 € esleitu zaizkio, BEZik gabe.

*** Altzariak erostea EUTEko laborategirako**

2024. urte amaieran, EUTEko kontrol-eraikina birmoldatzeko lanak esleitu dira eta EUTEko edateko uren laborategia handitu egingo da. Jarduketa honen ondorioz, kontrol-gela lekuz aldatu egingo da, lehen solairutik beheko solairura eramango da, eta lehen solairuan utziko duen lekua laborategia handitzeko izango da. Jarduketa

honek aurreikusten du gela horretako ekipamendua hornitu eta instalatzea (altzariak ea instalazio osagarriak).

125.000 € esleituko zaizkio jarduera honi, BEZik gabe.

*** Ekipo berriak erosi**

Laborategian neurketa-ekipo mugikor asko daude eta ekipo osagarri txikiak, eta horiek aldatu egin behar dira euren balio-bizitza gainditzen denean edo matxura kasuetan, hura konpontzea berria erostea baino garestiagoa denean.

Jarduketa honen aurrekontua 5.000 eurokoa da, BEZik gabe.

Hondakin-uren laborategirako materiala eta ekipoak erostea

*** Gasen kromatograforako Helio lerroa erosi**

2024. urteko amaieran konposatu lurrunkorrak aztertzeke erabiliko den gasen kromatografo berri bat instalatuko da EUTEko laborategian, gaur egun dagoen kromatografoak ez baitu nahikoa sentsibilitaterik zenbait parametro aztertzeke. Haatik, ekipo hori egokia da hondakin-uretan konposatu lurrunkorrak aztertzeke eta horrela isuriak hobeto kontrolatzeko. Detektatuak izan dira disolbagarriak (Hexano eta Tolueno) dituzten zenbait isurketa. Beraz, EUTEko laborategiko egungo kromatografoa araztegiko hondakin-uren laborategira eramango da eta horretarako Helioa hornitzeko lerro bat instalatu behar da.

Jarduketa honen aurrekontua 10.000 eurokoa da, BEZik gabe.

*** Zenbait ekipo erosi**

Laborategian neurketa-ekipo mugikor asko daude eta ekipo osagarri txikiak, eta horiek aldatu egin behar dira euren bizi-erabilgarria gainditzen denean edo matxura kasuetan, hura konpontzea berria erostea baino garestiagoa denean.

Jarduketa honen aurrekontua 5.000 eurokoa da, BEZik gabe

Proiektuak eta Obrak arloa

*** Proiektuak eta Obrak arlorako ibilgailu bat erosi**

Proiektuak eta Obrak arloko ibilgailuak obretako baldintzak jasaten dituzte. Obrak askotan leku zailetan kokatzen dira, leku aldapatsuetan eta egoera txarrean dauden bideetan. Arlo honetako ibilgailu batzuen antzinatasuna eta konponketen historiala kontuan hartuz, gomendagarria da 2025ean gutxienez ibilgailu horietako bat aldatzea.

Jarduketa honen aurrekontua 40.000 eurokoa da.

Saneamendu Arloa

Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Loiolako HUA

Loiolako HUAK, Añarbeko Urak-en beste instalazio batzuek baino gehiago, ekipamenduen, prozesatzeko gailuen, parametro hidraulikoen, fisiko-kimikoen eta biologikoen kontrol eta erregulazioaren eta materialen etengabeko hobekuntza eta modernizazioa eskatzen du.

Loiolako HUAKo jarduketak honako hauek dira:

* **Dekantagailuak: dekantagailuen kateen moldeak eta bi dekantagailuetarako kateen hornidura**

Loiolako HUAK zortzi dekantagailu ditu, uraren azaleko aparrak eta flotagarriak etengabe kentzeko sistemak dituztenak. Trakzio mekanikodun sistema bat dute, plastikozko kateez eta kate horietara lotuta dauden zenbait errasketaz osatua. Dekantagailu bakoitzaren ezaugarriak dira: azalera 1.260 m², guztira 5.000 m³-ko bolumena, 17 errasketa dituen trakzio mekanikoa duen sistema bat eta 102 metroko plastikozko katea, eta 24 errasketa dituen beste trakzio mekanikoa duen sistema bat 720 metroko plastikozko katearekin.

Denboraren poderioz, trakzio mekanikoko sistemek, batez ere plastikozko kateek, higadura handia jasaten dute, eta ondorioz tratamendua ez da hain eraginkorra. Dekantazio-sistemak behar bezala funtzionatzea funtsezkoa da, hondakin-uren arazketa egin ahal izateko eta isurketen baimenean exijitzen diren parametroak bete ahal izateko.

Helburua da, dekantagailuetako plastikozko kateen moldea egitea haiek erreproduzitzeko.

Jarduketa honen aurrekontua 175.000 €-koa da, BEZik gabe.

* **Laneko segurtasuna eta osasuneko ekipoak eta sistemak**

Helburua langileen segurtasuna hobetzea da, babes kolektiboko ekipamenduak eta sistemak aldatuz. 20.000 € esleitu zaizkio jarduketa honi.

* **Loiolako HUA: araztegiko irteerako kutxatilako gainezkabidea aldatu**

Loiolako HUAKo irteerako kutxatila errektangularra da; alde batetik iristen da dekantagailuetatik datorren ura (ur garbitua) eta plantako bypass-etako ura (eurialdietan), eta pareko aldetik ura irteten da lurreko hustubiderantz. Gaur egun, HUAKo irteerako kutxatilak aluminiozko uhate modular bat du. Honen helburua da maila egokia mantentzea ponpek modu egokian funtziona dezaten. Egoera honen eraginez, bai kutxatila bai bypass-kolektorea une oro kargan daude, eta horren eraginez solido kantitate handia pilatzen da eta mantentze-lanak egitea oso zaila da. Bestalde, uhate modularra oso kaltetua dago, eta puskatu ondoren irteerako kolektorera erori da.

Proposatzen dena zera da, sarrerako kolektorean altzairu herdoilgaitzezko uhate bat jartzea, maila mantentzeko eta ur industrialen ponpak funtzionatzen mantentzeko, eta aldi berean, irteerako kutxatilan eta bypass-kolektorean solidoen pilaketa ezabatzeko.

Aurrekontua 30.000 eurokoa da, BEZik gabe.

* **Loiolako HUA: Sei dekantagailuak estali**

Loiolako HUAk harea eta koipea kentzeko erabiltzen den eraikinean sei harea-kentzaile daude eta korrosio gehien duen puntuetako bat da. Korrosioa dago bai zati metalikoetan bai hormigoian, eraikinaren barruan dagoen hidrogeno sulfuroagatik. Eraikinean aireztatze eta aire-erazgailu sistema bat dago instalatua. Eraikinean dagoen hidrogeno sulfuro maila altuagatik aireztatzea ez da eraginkorra, eta ondorioz, zera proposatzen da: sei harea-kentzaileak lurraren arrasean estaltzea, soilik uraren azaleraren eta estalkiaren artean dagoen airea ateratzeko, eta horrela hidrogeno sulfuroa eraikinetik irtetea saihestuko litzateke.

Aurrekontua 300.000 eurokoa da, BEZik gabe.

* **Loiolako HUA: HUAko bulegoetako obrak**

Helburua da HUAko bigarren solairuaren banaketa aldatzea, gaur egun dauden bulego itxien ordeztu bulego irekiak jartzeko; espazioa optimizatu, komunikazioa hobetu eta langileen arteko sinergiak indartu nahi da. Aldi berean, bilera-gelak jarriko dira talde-lana sustatzeko eta proiektu komunak azaltzeko.

Aurrekontua 400.000 eurokoa da, BEZik gabe.

* **Loiolako HUA: kontrol-eraikineko fatxadako obrak**

Azken urtean HUAko kontrol-eraikinak fatxadako mortero zati bat galdu du, eta gainontzeko morteroa eskuz kendu behar izan da erorketa gehiago gerta ez zitezen. Honi gehitu behar zaio egungo fatxadaren isolamendu termikoa eskasa dela eta hezetasunak ageri direla; beraz, kontrol-eraikineko fatxadan obrak egitea proposatzen da, efizientzia energetikoari eta CO₂ emisioei buruz egungo legeria bete ahal izateko .

Jarduketari 500.000 € eman zaizkio, BEZik gabe.

* **HUAko kontrol-gela**

HUAko bigarren solairua birmoldatzeko obrak eta SCADAren obrak amaitu ondoren, HUAko kontrol-gela egokitzeko garaia izango da, ekipo audiobisualak eta altzari berriak jartzeko, eta horrela taldeko lana erraztu eta proiektu komunak azaltzeko.

Jarduketari 1500.000 € eman zaizkio, BEZik gabe.

* **Lehorketa termikoaren eraikina: Ordezkoak**

Loiolako HUAko lehorketa termikoa (VADEB IDD DX-600) da arazketa-prozesuko instalazio garrantzitsuenetakoa eta sofistikatuenetakoa. Makina bakarra denez eta osagai asko dituenez komeni da elementu sentikorrenen funtzionamendua bermatzea, instalazioaren funtzionamendua eten ez dadin. Elementu kritikoak kontserbazio egoera perfektuan egon beharko dute instalazioak behar bezala funtzionatu dezan.

2022ko urtarriletik lehorketa termikoa geldituta egon da, gas naturalaren eta energia elektrikoaren prezioen garestitzeagatik. Egoera horrek eragin du instalazioak mantentze orokor bat behar izatea eta osatzen duten zenbait elementu aldatu egin beharra. Ekintza honetarako 123.740 euroko aurrekontua dago, BEZik gabe.

* **Lehorketa termikoaren eraikina: lehorketa termikoko kondentsadorea aldatu**

Loiolako HUAk bi zirkuitu bereizi ditu: batetik lohi “hezea-lehorra” igarotzen da eta, bestetik, lohia lehorketan duen airea igarotzen da. Airea lohiarekin kontaktuan jartzen da eta hura lehortu egiten da, hauts eta hezetasunaz betetzen da. Aire-zirkuituaren instalazioaren zati bat erabiltzen da aireari hautsa eta hezetasuna kentzeko, kondentsadorea da. Ekipo horrek, denboraren poderioz, eta erabilera baldintzengatik narriadura handia duenez, berri bat jartzea proposatzen da.

Ekintza hau 2024rako aurrekontuan sartu zen baina ez zen gauzatu. Zenbatekoa 65.000 eurokoa da.

* **Loiolako HUAko iriste-obrako 4. lerroko bultzatzaileak**

AUSAren ponpen mantentzea egiten duen enpresak 2023. urte amaieran igorritako txostenean jakinarazten zen iriste-obrako ponpen bi bultzatzaile egoera txarrean zeudela; beraz, helburua da “Flygt NT3400” ponpen bi bultzatzaileak aldatzea eta bi bultzatzaile “Hard Iron” jartzea (aplikazio urratzaileentzat material bereziarekin eginda daude). Bi bultzatzaile horien aldatetarekin existitzen diren hamabi bultzatzaileetatik bederatzi aldatuta geratuko dira. Gainontzeko hiru bultzatzaileak higaduraren arabera eta euren errendimendu hidrauliko eta elektrikoaren arabera aldatuko dira.

Jarduketa hau 2024. urtean lizitatu da (2024ko urrian) eta amaiera 2025. urterako aurreikusten da. 2024erako aurreikusitako zenbatekoa 61.543 eurokoa da eta 2025eko ekitaldira eramaten da.

* **Kontrol eraikina: Loiolako HUAko bisitarien zentroa**

Jarduketa honen bidez, kontrol-eraikinaren zati bat egokitu nahi da, Loiolako HUAra datozen bisitari guztiei AUSAk Donostialdeko saneamenduaren kudeaketan egiten duen lana eta egiten dituen zereginak jakinarazteko eta ezagutarazteko. Horretarako behar diren ekipoak eta bitartekoak jarriko dira instalazioan.

2024rako aurreikusitako zenbatekoa 150.000 €-koa da eta ez da gauzatu, beraz 2025eko aurrekontuan sartu da zenbatekoa guztira 272.458 euro delarik, BEZik gabe.

Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak

Kontzeptu horretan, 105.000 € guztira, hainbat jarduera biltzen dira, eta horien artean hainbat HUPEtako gailuak berritzea eta instalatzea sartzen da, betiere ustiapeneko eta mantentze-lanetako langileen beharrak eta energia elektrikoaren kontsumoa ahal den neurrian murriztea helburu hartuta. Horrek instalazioetako ekintzetan laneko segurtasun-eta osasun-arriskuak murriztea ere ekarriko du.

Jarduketak honako hauek dira:

* **Saneamendu-sarea: existitzen diren ponpen ordeztuak eta errendimendua handitzea**

Helburua da, Saneamenduaren Eskema Orokorreko hondakin-uren ponpalekuekiko ponpak berritzea. Buxaduren ekiditeko errodetea duten ponpak jarriko dira, operatiba eta errendimendua handitzea.

Jarduketari 85.000 € eman zaizkio, BEZik gabe.

* **Laneko segurtasun eta osasuneko ekipamenduak eta sistemak**

Helburua langileen segurtasuna hobetzea da, babes kolektiboko ekipamenduak eta sistemak aldatuz. Jarduketari 30.000 € eman zaizkio, BEZik gabe.

Teknologia eta Berrikuntza arloa

* **Proiektuak IT-OT sistemetan**

Enpresako KIT sistemak modernizatu eta optimizatzera zuzenduriko ekintzak gauzatzea da helburua; hala nola, prozesuen digitalizazioa handitzea errendimendua eta errendimendua areagotzeko.

Ekintza honen aurrekontua 75.000 eurokoa da, BEZik gabe.

* **Zibersegurtasun gaietarako kudeaketa-proiektuak**

Helburua da, mehatxu zibernetikoen aurrean enpresaren egitura digitala babesteko ekintzak gauzatzea; segurtasun politikak, intzidentziak monitorizatzeko sistemak eta errekuperazio-planak ezartzea aurreikusten da.

Ekintza honen aurrekontua 75.000 eurokoa da, BEZik gabe.

* **Ekipo informatikoak erostea**

Azpiegitura teknologikoa eguneratua edukitzeko eta errendimendua izateko funtsezkoa da ekipu berriak erostea. Hor sartzen dira enpresaren eguneroko funtzionamendurako behar den *hardware* eta *softwarea* erostea; hala nola, zerbitzari berriak, lanerako estazioak, biltegiak eta kudeaketarako softwarea. Ekintza honetan sartzen

dira baita ere sareko ekipoak erostea, router-ak eta switch-ak, sarearen konektibitatea eta errendimendua hobetzeko helburuarekin.

Ekintza honen aurrekontua 30.000 eurokoa da, BEZik gabe.

B.7.6.4. PERTE Uraren Digitalizazioa

MITECOk onartu berri du behin-behinean, AUSAk eta Mankomunitateko beste 9 udalerrik osatutako elkarteak aurkeztutako DIGURBE proiektua, eta AUSAren azpiegituretarako beharrezkoak diren jarduketa guztiak garatzeko unea da, enpresako arlo funtzional guztietako sistemen funtzionaltasuna hobetuz.

Honako hauek dira jarduketak:

*** Hornidura Arloa**

Bloke horren barruan, azpiegiturek hobeto ezagutzeko jarduketak aurkeztu dira, sistemen hornidura-plan integralekin eta uraren kalitatea betetzearekin lotutako hainbat azterlan eta proiektu idatzita. Era berean, Añarbe ibaiaren arroak prezipitazio handien aurrean izango duen portaera (eredu hidraulikoak eta hidrológicoak) fidagarritasun handiagoz iragartzera bideratutako elementuak eduki nahi dira.

Ekintza honen aurrekontua 2.011.348 eurokoa da, BEZik gabe.

*** Saneamendu Arloa**

Multzo honen barruan, azpiegiturek hobeto ezagutzeko jarduerak aurkeztu dira, saneamenduko plan integralekin eta HUAtik ingurune hartzailera irteten denean urak izan behar duen kalitatea betetzearekin lotutako hainbat azterlan eta proiektu idatziz. Era berean, kudeaketa eraginkorragoa egiteko balio duten elementuak eta tresnak eduki nahi dira, efluenteak arazteko eta garraiatzeko prozesuak energetikoki optimizatuz.

Ekintza honen aurrekontua 1.961.102 eurokoa da, BEZik gabe.

*** Administrazioa eta Teknologia eta Berrikuntza Arloak**

Multzo horren barruan, arlo horren kudeaketa eraginkorragoa egiteko balio duten elementuak eta tresnak edukitzera bideratutako jarduketak aurkeztu dira, mantentze-sistemak, kontrol ekonomikoko sistemak eta fakturak kudeatzeko sistemak eta zibersegurtasuna kontrolatzeko sistemak hobetuz.

Ekintza honen aurrekontua 731.018 eurokoa da, BEZik gabe.

B.7.7. Diru-sarrera jakin batzuk gauzatzearen edo kostuak aurreztearen baldintzapeko inbertsioak

Aurreko guztiaz gain, jakina denez, ekitaldi bakoitzean inbertsioen exekuzioak aldaketa batzuk izan behar dituela ezinbestean azpimarratu behar da. Izan ere, jakina da obren

lizitazio-prozesuan, batzuetan esleipen-aurrekontuan beherapenak izaten direla, lizitazio-prozesuetan parte hartzen duten enpresen arteko lehia logikoaren ondorioz. Beherapen horien zenbatekoa egoera ekonomiko orokorraren arabera da, eta, batez ere, obra publikoaren eta eraikuntzaren merkatuaren arabera. Hori dela eta, AUSAk Mankomunitatearen izenean egiten dituen obren likidazioa ia beti oso doitu da, baina ez esleipen-aurrekontuaren zertxobait azpitik.

Osagarri gisa, inbertsioen aurrekontua garatu eta gauzatu bitartean, batzuetan bere jarduketetako batzuk, azkenean, hasieran uste zena baino irismen tekniko eta ekonomiko txikiagoa dakartela ikusten da; are gehiago, batzuetan, ez da beharrezkoa; izan ere, dagokion azterlana edo proiektua idatzi ondoren edo tokian tokiko xehetasun tekniko zehatzagoak aztertu ondoren, lehen eskura zegoen informazioa ez zela behar bezain zehatza egiaztatzen da eta jarduera ez zela beharrezkoa. Zer esanik ez, horrek helburu horretarako gordetzen ziren baliabide ekonomikoak ere askatzen ditu, partzialki edo erabat.

Egia da, era berean, kasuren batean jarduketa baterako edo batzuetarako zenbatetsitako zenbatekoak ez direla nahikoak izaten, hain zuzen ere haien irismen zehatza dagokion exekuzio-proiektua idatzi ondoren soilik jakin daitekeelako; eta bakan batzuetan obra baten likidazioa esleipen-aurrekontua baino pixka bat handiagoa izatea gerta daiteke, ezin direlako gertatu, oro har lurraren izaeran eta eragindako zerbitzuen birjarpenean jatorria dutelako, eta horien garrantzia ezin delako zehaztasun osoz aurreikusi proiektua idazterakoan.

Horregatik, sarrera jakin batzuk gauzatzearen edo goian azaldutako kostuak aurreztearen mende dauden inbertsioei buruzko epigrafe bat sartzea komeni da:

Ekintza	Deskribapena	Zenbatekoa (€-tan)
1	Saneamenduko kolektore handietarako sarbideak egokitzea	350.000
2	Loiolako HUA handitzea	12.000.000
3	Santa Barbarako EUBBtik Hernanirako hornidura-sistema optimizatzea	2.000.000
4	Loiolako HUAko tratamendu biologikoko putzuak estaltzea	2.200.000
5	Itsasoko uraren intrusioa ezabatzea	500.000
6	Lehorreko hustubidea birgaitzeko eta hobetzeko aukeren azterketa	60.000
7	Ibaetako HUPetik Santa Katalinako HUPera bulkatzeko hodia handitzea	1.600.000
8	Erremineralizazioa, disolbaezinak eta erreaktiboak kontrolatzeko armairuen PLC zaharkituak ordezte	55.000
9	Uren arloko araudi berria betetzeari lotutako azterlanak eta proiektuak	150.000
10	Monitorizazio bidezko itsas uraren intrusioa aztertzea	65.000
11	Zibersegurtasun-sistemak eta AUSAren azpiegitura-plan sensibleak hobetzea	150.000
12	Loiolako HUAko desodorizazioak aldatzea	300.000
13	Oiartzun ibaiaren eskuineko ertzeko hiri-kolektorea, 2. fasea	2.500.000
14	Oiartzun ibaiaren eskuineko ertzeko hiri-kolektorearen proiektua idaztea (3. fasea)	125.000
15	Bonba berria Santa Katalinako HUPen	225.000
16	Anoetako ibarbidearen ingurua saneatzeko proiektua idaztea	250.000
17	Anoetako ibarbidea saneatzeko obra egitea	5.000.000
18	Galbahea Saguesen-Santa Katalinan	450.000
19	Herrerako tunelaren aurreko galbahea (HUA)	450.000

20	Mompaseko lurreko hustubidearen sarbidea hobetzea	65.000
21	Saneamendu-mugaketaren ondoriozko jarduketak	500.000
22	HUPE desberdinetako ponpaketa-putzuen konponketak	150.000
23	AUSAren instalazioen komunikazio-sarea hobetzea	150.000
24	HUAN sortzen ari diren kutsatzaileen eta mikroplastikoen presentziaren eta deuseztapenaren azterketa analitikoa	25.000
25	Hobekuntza elektrikoak Loiolako HUAN	150.000
26	Petritegiko ozonizazio- eta iragazketa-sistema hobetzeko obrak	1.250.000
27	Hornidura-uren gaitasun korrosiboari buruzko azterlana	40.000
28	Ezkerreko hondoko hustubideko hodi behartuaren egiturazko osotasunaren azterketa eta Riko hodia eta balbula hobetzeko lanak	125.000
29	Hornidura-sareetan mikroturbinak instalatzea	400.000
30	ETPZ berria eraikitzea	12.000.000
31	Pasaiako badiako gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak	6.000.000
32	Desodorizazio kimikoak biologiko bihurtzea - 1. fasea	500.000
33	Pasai Donibaneko saneamendua	500.000
34	Errotaburuko 2. Solairua birgaitu eta egokitzeko obrak	500.000
35	Ibaeta HUPEko obren 2. fasea	500.000
36	Ibaeta HUPEko transformazio-ekipoa	150.000
37	Instalazioen eta pista perimetraleko seinaleztapena hobetu	25.000
38	Presako etxeke hobi septikoa aldatu	30.000
39	Hornidurako ur-bilketen ixtea	20.000
40	HUAko B digestoreko lanak	50.000
41	HUAko kontroleko PLC aldatzeko proiektua	40.000
42	Harea kentzaileetako koadro eta mahuka elektrikoak aldatu	50.000
43	Sagues HUPEko koadro elektrikoa aldatu	24.000
44	Karbono organiko totala + N totalaren aztertzailea	80.000

B-8. Transferentzien eranskina

2023. ekitaldian, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Uraren Euskal Agentziak, Pasaiako Udalak eta Añarbeko Uren Mankomunitateak hitzarmen bat sinatu zuten "Pasai Donibaneko saneamendu-proiektuaren lehen fasearen obrak gauzatzeko (Bonanza pasealekutik Santiago plaza bitarteko zatia).

Hitzarmen horren arabera, obra horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatuko ditu, eta Añarbek obraren %10 finantzatzeko konpromisoa hartu zuen. Hori dela-eta, 2023ko aurrekontuan 190.000 euro aurreikusi ziren obra horretarako. Ekintza oraindik ez da gauzatu eta, ondorioz, Añarbek ez du ekarpenik egin; beraz, aurrekontu-esleipena 2025eko aurrekontura eramaten da.

B-9. AUSAren aurreikuspen-kontuak

2025eko abenduaren 31ko aurreikusitako balantzea

AKTIBOA		PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		ONDARE GARBIA	
Ibilgetu ukiezina	1.353.217	Funts propioak	
Ibilgetu materiala	185.623.584	Harpidetutako kapitala	3.649.000
Ondasun higiezinetakoko inbertsioak	0	Erreserbak	80.744.815
taldeko enpresetan egindako inbertsioak epe luzera	2.841.066	Ekitaldiko emaitza	3.768.131
Aktibo ez-korrontea, guztira	189.817.867	Funts propioak guztira	88.161.946
		Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	96.466.466
AKTIBO KORRONTEA		Ondare garbia guztira	184.628.412
Izakinak	157.223	PASIBO EZ-KORRONTEA	
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk		Epe luzeko zorrak	3.782.320
Bezeroak salmenten eta zerbitzu-emateen arabera	3.995.042	Pasibo ez-korrontea, guztira	3.782.320
Hainbat zordun	1.456.182	PASIBO KORRONTEA	
Zordunak, guztira	5.451.224	Epe laburreko zorrak	4.049.966
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	2.340.350	Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk -	
Aktibo korrontea guztira	7.948.797	Hornitzaileak	3.833.526
		Hainbat hartzekodun	1.190.016
		Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	282.424
		Hartzekodunak guztira	5.305.966
		Pasibo korrontea guztira	9.355.932
AKTIBOA GUZTIRA	197.766.664	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	197.766.664

**Aurreikusitako galdu-irabazien kontua
2025eko ekitaldiari dagokiona**

A) ERAGIKETA JARRAITUAK	
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	23.688.198
a) Salmentak	564.103
b) Zerbitzuak ematea	23.124.095
4. Hornikuntzak	-11.500.576
b) Lehengaien eta bestelako gai kontsumigarrien kontsumoa	-5.834.574
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak	-5.666.002
5. Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk	427.968
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	427.968
6. Langile-gastuak	-2.854.532
a) Soldatak eta antzekoak	-2.233.280
b) Karga sozialak	-621.252
7. Beste ustiapen-gastu batzuk	-3.570.049
a) Kanpo-zerbitzuak	-2.388.801
b) Zergak	-1.181.248
8. Ibilgetuaren amortizazioa	-8.122.570
9. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelakoen egozpena	5.054.159
A.1) USTIAPENKO EMAITZA	3.122.598
13. Sarrera finantzarioak	770.000
a) Ondare-tresnetako partaidetzak	700.000
a1) Taldeko enpresenak eta elkartuenak	700.000
b) Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak	70.000
b2) Hirugarrenenak	70.000
14. Finantza-gastuak	-116.467
b) Hirugarrenetikiko zorrenatik	-116.467
A.2) FINANTZA-EMAITZA	653.533
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA	3.776.131
17. Mozkinen gaineko zerga	-8.000
A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIKO EMAITZA	3.768.131
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	3.768.131

Aurreko egoeran aurkeztutako emaitza ekonomikoak 2025eko Urteko Kontuetan magnitude horren aurreikuspena adierazten du. Hala ere, ikus daitekeenez, emaitza horrek kapitaleko dirulaguntzak eta banatu beharreko beste diru-sarrera batzuk eskualdatzea barne hartzen du, 5.054 mila euroko zenbateko bateratuan.

Beraz, zerbitzuak ematetik eratorritako guztizko gastuak, zerbitzuaren erabiltzaileek erabiltzen duten azpiegitura guztiaren amortizazio teknikoari dagozkionak barne – finantzaketa-jatorria edozein dela ere (funts propioak, zorpetzea, dirulaguntzak edo lagapenak) –, oinarriko zerbitzuak ematetik eta beste jarduera lagungarri batzuetatik lortutako diru-sarrerak 1.286 mila eurotan gainditzeko dira.

**Dagokion aurreikuspen-ondarean izandako aldaketen egoera
2025eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldian**

2025eko ekitaldiari dagozkion diru-sarrera eta gastu aitortuen egoera-orriak

Kontzeptua	2025
A) Galdu-irabazien kontuaren emaitza	3.768.131
Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak	
III. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	2.995.128
B) Zuzenean ondare garbira egotzitako diru-sarrerak eta gastuak guztira	2.995.128
Galdu-irabazien kontura egindako transferentziak	
VIII. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	(5.054.159)
C) Galdu-irabazien kontura egindako transferentziak, guztira	(5.054.159)
KONTABILIZATUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	1.709.100

2025eko ekitaldiari dagokion ondare garbiaren aldaketen egoera-orri osoa

	Kapital eskrituratua	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2022ko azken saldoa	3.649.000	80.358.268	1.463.678	104.028.578	189.499.524
B) 2023. urtearen hasierako saldo doitua	3.649.000	80.358.268	1.463.678	104.028.578	189.499.524
I. Kontabilizatutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(1.077.131)		(1.077.131)
III. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	-	1.463.678	(1.463.678)	(5.503.081)	(5.503.081)
C) 2023ko azken saldoa	3.649.000	81.821.946	(1.077.131)	98.525.497	182.919.312
D) 2024. urtearen hasierako saldo doitua	3.649.000	81.821.946	(1.077.131)	98.525.497	182.919.312
I. Kontabilizatutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	-	-	3.768.131	2.995.128	6.763.259
III. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	-	(1.077.131)	1.077.131	(5.054.159)	(5.054.159)
E) 2024. urteko azken saldoa	3.649.000	80.744.815	3.768.131	96.466.466	184.628.412

C) Gestión de Centrales del Añarbe, SA sozietate publikoaren aurrekontua

C.1. Sarrera

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietateak % 70eko partaidetza du Gestión de Centrales del Añarbe, SA (aurrerantzean GECASA) sozietatearen kapital sozilean. Sozietate honen xedea da minizentral hidroelektrikoak, kogenerazio-instalazioak, biomasaren energia-aprobetxamendukoak, eguzki-energiakoak eta bestelako energiakoak sustatu, eraiki, birmoldatu eta hornitzea, bai produkzio elektrikorako, bai produkzio termiko edo mekanikorako, kontsumo propioa edo salmentara bideratuta.

2003. urtean, Sozietatearen partaidetza GECASAn horren kapital sozialaren % 2,44tik % 70era igo zen, Añarbe II zentral hidroelektrikoaren ekarpenari eta Sozietatearen beste bazkidea den Energiaren Euskal Erakundearen % 5 eskuratzeari esker.

Gaur egun, energia elektriko hidroelektrikoa produzitzeko GECASARI eman zaizkion ustiapen-emakidak Añarbe I zentrala (Añarbeko presaren oinean dagoen zentrala) eta Añarbe II zentrala (Goizuetako udalerrian dagoena) izenekoei dagozkie.

Gainera, Sozietateak Loiolako HUAN energiaren kogeneraziorako bi zentral ditu: batek gas naturala erabiltzen duten hiru motor ditu (1.416 kW-ko potentzia unitarioa dute); besteak, berriz, hondakin-urak arazteko prozesutik sortutako biogasa erabiltzen duten bi motor ditu (805 kW-ko potentzia unitarioa dute).

Azkenik, aipatzekoa da zortzi eguzki-zentral fotovoltaiko kudeatzen dituela. Horietatik zazpik 5 kW-ko potentzia izendatua dute eta AUSARI erosi zizkion. Zortzigarrenak, berriz, 70 kW-ko potentzia izendatua du eta Oriabentako edateko ura banatzeko biltegiaren gainean instalatu zuen GECASAK.

C.2. GECASAREN aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria

2025erako GECASAREN aurreikuspen-egoerak honako premisa hauetan oinarrituta egin dira:

- Añarbe I eta Añarbe II zentral hidroelektrioen ekoizpenak 6 GWh eta 4 GWh dira, hurrenez hurren. Aurreikuspen horiek egin dira aurreikusiz 2025. Urtean ez duela burutuk Kantauriko Hidrografi Konfederazioak Añarbe I zentralaren emakida azkentzeko espedientea.
- Biogasaren kogenerazioak 2025ean autokontsumo-erregimenean funtzionatzea eta gas naturalaren kogenerazioa "todo-todo" erregimenean funtzionatzea aurreikusi da.
- Gas naturalaren erosketa-prezioa 45 €/ MWh ingurukoa izango dela balioztatzen da.
- Gas naturalaren kogenerazio instalazio-operazioaren osagarriaren balio gisa balioztatzen da 70 €/MWh.

- Energia elektrikoaren salmenta-prezioa 60 €/ MWh-ko aurreikusi da.
- Energia elektrikoaren AUSAri saltzeko prezioa (merkatuko prezioa gehi araututako kontzeptuak barne) 97,50 €/ MWh izango dela kalkulatu da.

C.3. Laburpena kapituluka

Kapitulua	Sarrerren egoera-orria	Euro
3	Tasak eta bestelako sarrerak	4.323.846
5	Ondare-sarrerak	90.000
8	Finantza-aktiboak	1.084.684
Sarrerren egoera-orria guztira		5.498.530

Kapitulua	Gastuen egoera-orria	Euro
1	Langile-gastuak	143.191
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.603.339
6	Inbertsio errealak	752.000
8	Finantza-aktiboak	1.000.000
Gastuen egoera-orria guztira		5.498.530

4. Xehetasunak kontu-sailka

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Euro
343.01	Energia elektrikoaren salmenta – ZH 1	360.000
343.02	Energia elektrikoaren salmenta – ZH 2	240.000
343.03	Energia elektrikoaren salmenta – Kogenerazioa	2.881.449
343.06	Energia elektrikoaren salmenta - Fotovoltaikoa	45.152
343.04	Energia termikoaren salmenta	797.245
III. kapitulua guztira		4.323.846
560.00	Gordailuen interesak	90.000

V. kapitulua guztira		90.000
880.01	Aurrekontua berdintzeko eragiketak	1.084.684
VIII. kapitulua guztira		1.084.684
Sarrerren egoera-orria guztira		5.498.530

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Euro
130.01	Langile lan-kontratudunak	105.307
160.01	Gizarte Segurantzako kuotak eta Geroa	37.679
163.05	Beste gastu sozial batzuk	205
I. kapitulua guztira		143.191
201.01	Alokairuak	13.440
201.02	Alokairuak – Kogenerazioa	28.410
210.01	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – ZH 1	5.000
210.02	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – ZH 2	25.000
210.03	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – Kogenerazioa	434.345
210.04	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – Fotovoltaikoak	7.000
221.01	Energia elektrikoa – ZH 1	616
221.02	Energia elektrikoa – ZH 2	782
221.03	Energia elektrikoa – Kogenerazioa	65.508
221.04	Energia elektrikoa – Beste zenbait	360
221.05	Gas naturala - Kogenerazioa	1.858.647
221.06	Biogasa - Kogenerazioa	564.103
224.01	Ibilgetuaren aseguru-primak – ZH 1	6.120
224.02	Ibilgetuaren aseguru-primak – ZH 2	13.404
224.03	Ibilgetuaren aseguru-primak - Kogenerazioa	18.747

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
224.04	Ibilgetuaren aseguru-primak – Fotovoltaikoak	2.637
225.01	Bestelako tributuak – ZH 1	2.300
225.02	Bestelako tributuak – ZH 2	1.004
225.03	Bestelako tributuak – Kogenerazioa	12.668
225.04	Bestelako tributuak – Fotovoltaikoak	850
225.05	Konfederazio Hidrografikoaren kanona – ZH 1	133.017
225.06	Ur kontinentalak erabiltzearen ondoriozko kanona – ZH 1	7.344
225.07	Ur kontinentalak erabiltzearen ondoriozko kanona – ZH 2	4.896
225.08	IVPEE – ZH 1	25.200
225.09	IVPEE – ZH 2	16.800
225.10	IVPEE – Kogenerazioa	132.108
225.11	IVPEE – Fotovoltaikoak	3.161
225.99	Sozietateen gaineko zerga	138.671
226.99	Hainbat gastu – ZH 1	4.211
226.99	Hainbat gastu – ZH 2	3.221
226.99	Askotariko gastuak – ZHak	10.000
226.99	Askotariko gastuak - Kogenerazioa	25.000
226.99	Askotariko gastuak - Fotovoltaikoak	90
226.99	Askotariko gastuak	27.200
227.01	Beste enpresa batzuek egindako lanak – ZH 1	1.680
227.02	Beste enpresa batzuek egindako lanak – ZH 2	3.480
227.03	Beste enpresa batzuek egindako lanak - Kogenerazioa	6.000
227.04	Beste enpresa batzuek egindako lanak - Fotovoltaikoak	319
II. kapitulua guztira		3.606.339
623.01	ZH 2: hobetze jarduketak (urbanizazioa, galeria, birmoldatze hidrau.)	481.000
623.02	ZH 2: Turbinetako alabeak eta kaskilloak berritu	10.000

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
623.03	KOGE: ura hozteko sistema eta motor-gelako aireztatzea hobetu	250.000
623.04	EZF: Sasoeta EZF hobetzeko jarduketak	6.000
623.06	Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	5.000
VI. kapitulua guztira		752.000
872.90	Gainerako ekarpenak (dibidenduak)	1.000.000
VIII. kapitulua guztira		1.000.000
Gastuen egoera-orria guztira		5.498.530

C.5. Konpromiso-kredituen xehetasuna

GECASAK ez du konpromisorik etorkizuneko ekitaldietarako.

6.C. Gastu arruntaren kapituluaren jardueren arabera banakatzea

Kapitulua	ZHak	KOGE	EEZZFF	Gastu orokorrak	Guztira
Langile-gastuak				143.191	143.191
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	264.075	3.145.536	14.057	179.671	3.603.339
-Alokairuak		28.410		13.440	41.850
-Konponketak eta mantentze-lanak	30.000	434.345	7.000		471.345
-Hornidurak	1.398	2.488.258		360	2.490.016
-Aseguru-primak	19.524	18.747	2.637		40.908
-Zergak	190.561	144.776	4.011	138.671	478.019
-Askotariko gastuak	17.432	25.000	90	27.200	69.722
-Beste enpresa batzuek egindako lanak	5.160	6.000	319		11.479
Guztira	264.075	3.145.536	14.057	322.862	3.746.530

C.7. Inbertsioen eranskina

GECASAREN aurreikuspen-egoeretan sartutako inbertsioen xehetasuna honako hau da:

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZik gabe)
ZH 2: Hobetzeko jarduketak	481.000
ZH 2: Turbinetako alabeak eta kaskilloak berritu	10.000
KOGE: ura hozteko sistema eta motor-gelako aireztatzea hobetu	250.000
EZF: Sasoeta EZF hobetzeko jarduketak	6.000
Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	5.000
Guztira	752.000

C.8. GECASaren aurreikuspen-kontuak

2025eko abenduaren 31rako aurreikusitako GECASaren balantzea

AKTIBOA		PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		ONDARE GARBIA	
Ibilgetu materiala	2.628.336	Funts propioak	
AKTIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	2.628.336	Kapital harpidetua	1.812.802
		Jaulkipen-prima	776.415
AKTIBO KORRONTEA		Erreserbak	362.560
Zordun komertzialak eta kobratzeko		Ekitaldiko emaitza	439.124
salmenten eta zerbitzugintzen	658.974	Funts propioak guztira	3.390.901
ondoriozko bezeroak		Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta	20.037
Zordunak guztira	658.974	legatuak	
		ONDARE GARBIA GUZTIRA	3.410.938
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	2.272.028	PASIBO EZ-KORRONTEA	
AKTIBO KORRONTEA GUZTIRA	2.931.002	Geroratuko zergaren ondoriozko pasiboak	7.355
		Periodifikazioak epe luzera	926.231
		PASIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	933.586
		PASIBO KORRONTEA	
		Epe laburrerako zorrak	0
		Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako	
		Hornitzaileak	762.396
		Ogasun publikoa, sozietateen gaineko	138.671
		zergaren ondoriozko hartzekodun	
		Administrazioekiko bestelako zorrak	45.107
		Hartzekodunak guztira	946.174
		Periodifikazioak epe motzera	268.640
		PASIBO KORRONTEA GUZTIRA	1.214.814
AKTIBOA GUZTIRA	5.559.338	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	5.559.338

2025erako aurreikusitako GECASaren galera-irabazien kontua

A) ERAGIKETA JARRAITUAK	
1. Negoio-zifraren zenbateko garbia	4.323.846
a) Salmentak	4.323.846
6. Langile-gastuak	(143.191)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	(105.307)
b) Karga sozialak	(37.884)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(3.464.667)
a) Kanpoko zerbitzuak	(3.125.319)
b) Zergak	(339.348)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(234.358)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelakoen egozpena	6.165
A.1) USTIAPEN-EMAITZA	487.795
13. Finantza-sarrerak	90.000
14. Finantza-gastuak	0
A.2) FINANTZA-EMAITZA	90.000
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA	577.795
17. Mozkinen gaineko zerga	(138.671)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDIKO EMAITZA	439.124
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	439.124

GECASaren aurreikusitako ondarean izandako aldaketen egoera 2025eko ekitaldira begira

2025eko ekitaldiari dagozkion aitortutako sarrera eta gastuen egoera-orriak

Kontzeptua	Zenbatekoa
A) Galera-irabazien kontuaren emaitza	439.124
Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak	
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak guztira	439.124
Transferentziak galera-irabazien kontura	
VIII. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	(4.685)
IX. Zerga-ondorioa	(1.480)
C) Transferentziak galera-irabazien kontura guztira	(6.165)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	432.959

2025eko ekitaldiari dagokion ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria guztira

	Kapital eskrituratua	Jaulkipen- prima	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2023ko amaierako saldoa	1.812.802	1.003.054	362.560	852.271	27.979	4.058.666
B) 2024ko hasierako saldo doitua	1.812.802	1.003.054	362.560	852.271	27.979	4.058.666
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	773.361	(3.257)	770.104
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin						
4. (-)Dibidenduen banaketa	-	-	-	(852.271)	-	(852.271)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-
C) 2024ko amaierako saldoa	1.812.802	1.003.054	362.560	773.361	24.722	3.976.499
D) 2025eko hasierako saldo doitua	1.812.802	1.003.054	362.560	773.361	24.722	3.976.499
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	439.124	(4.685)	434.439
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin						
4. (-)Dibidenduen banaketa	-	(226.639)	-	(773.361)	-	(1.000.000)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-
E) 2025eko amaierako saldoa	1.812.802	776.415	362.560	439.124	20.037	3.410.938

D) Aurrekontu kontsolidatua

**Añarbeko Uren Mankomunitatea,
Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak, SA eta Gestión de Centrales del Añarbe, SA**

DIRU-SARREREN EGOERA BATERATUA						
Kap.	Izena	MAGA	AUSA	GECASA	Doikuntzak	Kontsolidatua
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	10.001	24.033.340	4.323.846	-2.143.721	26.223.466
		-1	-722.291	-1.421.429		
5	Ondare-sarrerak	0	852.826	90.000	-728.575	214.251
		0	-728.575	0		
7	Kapital-transferentziak	0	4.310.198	0	0	4.310.198
		0	0	0		
8	Finantza-aktiboak	0	2.995.129	1.084.684	0	4.079.813
		0	0	0		
9	Finantza-pasiboak	0	1.251.390	0	0	1.251.390
		0	0	0		
Sarreren egoera-orria		10.001	33.442.883	5.498.530	-2.872.296	36.079.118

GASTUEN EGOERA BATERATUA						
Kap.	Izena	MAGA	AUSA	GECASA	Doikuntzak	Kontsolidatua
1	Langile-gastuak	0	2.854.532	143.191	0	2.997.723
		0	0	0		
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	10.001	15.078.626	3.603.339	-2.172.296	16.519.670
		-1	-1.421.429	-750.866		
3	Finantza-gastuak	0	116.467	0	0	116.467
		0	0	0		
6	Inbertsio errealak	0	15.009.862	752.000	0	15.761.862
		0	0	0		
7	Kapital transferentziak	0	190.000	0	0	190.000
		0	0	0		
8	Finantza-aktiboak	0	0	1.000.000	-700.000	300.000
		0	0	-700.000		
9	Finantza-pasiboak	0	193.396	0	0	193.396
		-	-	-		
Gastuen egoera-orria		10.001	33.442.883	5.498.530	-2.872.296	36.079.118

E) Maileguen egoera

2025eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren hasieran eta itxieran aurreikusitako zorpetzea

2025eko urtarrilaren 1erako aurreikusitako egoera

AUSA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
Caja Rural Navarra	2020/12/20	1.226.942	Euribor + % 0,685	1.078.065		2035/12/20
Kutxabank	2022/11/22	1.895.551	Euribor + % 0,39	1.895.551		2037/11/22
AUSAren saldoa guztira 2023ko urtarrilaren 1ean				2.973.616	-	

GECASA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
GECASAREN saldoa guztira 2025eko urtarrilaren 1ean				0	-	

2025eko abenduaren 31rako aurreikusitako egoera

AUSA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
Caja Rural Navarra	2020/12/20	1.226.942	Euribor + % 0,685	999.162		2035/12/20
Kutxabank	2022/11/22	1.895.551	Euribor + % 0,39	1.781.058		2037/11/22
2025erako mailegu berria	Finkatzeke	1.251.390		1.251.390		
AUSAren saldoa guztira 2025eko abenduaren 31n				4.031.610	-	

GECASA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
GECASAREN saldoa guztira 2025eko abenduaren 31n				0	-	

F) Zorpetzearen eranskina

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietateak 2025eko abenduaren 31n izango duen zorraren aurreikuspena, aurreko tauletan azaldu den xehetasunen arabera, 4.031.610 €-koa da; Mankomunitateak eta GECASAk, berriz, ez dute zorrik aurreikusi.

Zorpetze-mailari dagokionez, haren erregulazioa Gipuzkoako Toki Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 51. artikuluan eta hurrengoetan jasota dago.

Aipatutako arauaren 53. artikuluan xedatzen den prozeduran oinarrituz, ondoren Sozietatearen zorpetze-maila xehatzen da, kontuan hartuta maila hori lortzen dela, batetik, indarrean dauden kreditu-eragiketen ondoriozko finantza-karga ordaintzera bideratzen diren kopuruen eta, bestetik, eragiketa arrunten ondoriozko sarreren arteko zatiduratik.

2024ko ekitaldirako eragiketa arrunten ondoriozko sarreren likidazio-aurreikuspena 24.912.215 €-koa da. Formalizatuta dauden eta 2025ean formalizatuko diren kreditu-eragiketengatik urte horretan ordaindu beharreko finantza-karga teorikoa 423.691 €-koa izango dela aurreikusten da.

Azaldu denaren arabera, Sozietatean aurreikusitako legezko zorpetze-maila, 2025eko ekitaldirako, % 1,70 izango dela ondorioztatzen da.

III. AURREKONTU OROKORRA GAUZATZEKO ARAUA

1. artikulua

Aurrekontua onartu, kudeatu eta likidatzeko, toki-erakundeei aplikatu beharreko aurrekontu-araudian eta aurrekontua gauzatzeko arau honetan xedatutakora egokitu beharko da. Aurrekontuaren indarraldi bera izango du arau honek. Hori dela eta, aurrekontua luzatuz gero, arau hau ere indarrean egongo da aldi horretan.

2. artikulua

Arau hau Aurrekontu Orokorra gauzatzeko eta garatzeko aplikatuko da. Hortaz, aplikatzekoa izango da, oro har, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA eta Gestión de Centrales del Añarbe, SA sozietateen aurrekontua gauzatzeko ere.

3. artikulua

Ekitaldirako Aurrekontu Orokorra Mankomunitatearen beraren eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA eta Gestión de Centrales del Añarbe, SA sozietateen aurrekontuek osatzen dute. Horietan, aipatutako erakundeek aitortzea aurreikusten duten betebeharren adierazpen zifratu eta sistematikoa jasotzen da (Mankomunitatearen kasuan, izaera mugatzailearekin), baita ekitaldian zehar likidatzea aurreikusten duten eskubideena ere. Zehazki, honako hauek dira bakoitzaren zenbatekoak (eurotan adierazita):

Erakundea	Gastuen egoera-orriak	Sarrerren egoera-orriak	Baliabide arruntak
Mancomunitatea	10.001	10.001	10.001
AUSA	33.442.883	33.442.883	24.886.166
GECASA	5.498.530	5.498.530	4.413.846

4. artikulua

Mankomunitatearen gastu propioen aurrekontuko "Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak" izeneko 2. kapituluaren lotura juridikoa kapitulu-mailakoa izango dela finkatzen da.

5. artikulua

Gehieneko berme- eta zorpetze-mailak Aurrekontu Orokorra osatzen duten 2024rako aurrekontuetako sarreren egoera-orrietan jasotako baliabide arrunten zenbateko osoan finkatzen dira.

6. artikulua

Mankomunitatearen gastuen aurrekontuko honako kontu-sail hau zabaldu egin daiteke, hari esleitutako finantzaketaren arabera:

KREDITU ZABALGARRIA

Kontu-saila	Izena	Hasierako zenbatekoa (€-tan)
227.99	Kanpoko beste lan batzuk	1

FINANTZAKETA

Kontu-saila	Izena	Hasierako zenbatekoa (€-tan)
399.01	Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak	1

Eskubide handiagoak aitortzearen arabera zabaldu daitekeen kreditua kredituak gaitzeko erregimenaren bidez finantzatuko da.

7. artikulua

Mankomunitateko Presidentetzari dagokio kreditu osagarriak onartzea, baldin eta Aurrekontu Orokor Bateratuaren %5 gainditzen ez badute eta diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen badira.

8. artikulua

Mankomunitateko Presidentetza izango da zergapekoak ez diren ondare-prestazio publikoen ondoriozko sarreren likidazioen subjektu pasiboek aurkez ditzaketen errekurtsioak ebazteko organo eskuduna.